


Berriak



Gaztetzoen botoa

UNICEFen "Haurren ahotsa" kanpaina martxan

OPEL




TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK



Azaroak 21

HAURREN AHOTSA 

Zure seme-alabek zeregin garrantzitsua izango dute.



1 Nortasuna

Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinesmen eta tradizioen arabera bizitzekoa.



7 Babesa

Nire gorputza eta nire sentimendua mindu ez diezazkidaten eskubidea, tratu txarrik, laidorrik, edota sexu-abusurik ez izatekoa, zapaldua ez izatekoa.

2 Familia

Maite eta orientatzen nauen familia batean bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta haiengandik bereiztu ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada behintzat.



8 Partehartzea

Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzekoa, eta nire iritziak aintzat hartuak izan daitezten.



3 Osasuna

Zainketa medikuak izateko eta bizitza-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetatik libre eta kutsatu gabeko leku atsegin batean bizitzekoa.



9 Ongizatea

Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar besteko baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.

4 Hezkuntza

Besteekin batera bitzen ikasteko eta hobea izateko hezkuntzarako eskubidea, zoriontsu naizen eta ikasteko gogoz joaten naizen eskola bat izatekoa.



10 Bakarra

Indarkeriarik gabeko gizarte baketsu batean bizitzeko eskubidea, elkartasuna, tolerantzia eta adiskidetasuneko izpiritu batean hezitzekoa.



5 Jolasa

Jolasteko denbora, lekuak eta jolaskideak izateko eskubidea.




11 Haurra aurretik

Erabakiak haurren premietan oinarrituta har daitezten eskubidea.

6 Berdintasuna

Diskriminatua ez izatekoa eskubidea eta tratu berritzaileak jasotzeko, behar izanez gero.



12 Elkartasuna

Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.



Haurrek beren eskubideak aukeratuko dituzte. **Bozkatu!**





Mendia

Ane Gartzandia / Ikaslea

Mendia, gure lehen arbasoen bizileku izandakoa, guztiok era desberdinean bizi dugula nahiko argi dago. Batzuen esanetan gozamenaren adibide den bezala, beste askorentzat sufrimendu eta nekearen sinonimo baino ez da.

Esanak esan, mendiak anitz aberastasun eskaintzen digula denok dakigun zerbait da. Beste gauza askoren artean, eguneroko bizitzatik ihes egiteko aukera paregabea luzatzen digu, naturan aurki dezakegun pakeaz baliatuz. Entrenimendu iturria izatera ere irits daiteke, batez ere perretxikotan ibiltzeko aukera dagoenean.

Hala ere, mendizale asko ez da "opari" guzti hauen jabe, eta beste interes batzuek mugituta ibiltzen dira mendian. Honela, mendizale "mota" desberdinak daudela ziurta genezake. Alde batetik, goi mailakoak ditugu, beraien bizitzan mendia lehentasuna delarik; beraien bizitzaren parte da. Gu guztiontzat eskuragaitzak diren gailu-

rretan ibili ohi dira, mendia baita beraien "habitat" nagusia. Eta mendizaleak profesional izan daitezkeela ezin esan badaiteke ere, badago mendiko erreportaiak eginez bizi denik.

Bada beste talde bat ere, mendiak eskaintzen duenaz gozatzera baino beraien "eginbharra" betetzera doazela dirudienak. Hauek ezinbestekoak dituzte kronometroa eskuturrean, merka-

tuko bota onenak oinetan, eta gailurreira iristen direnerako edari isotoniko horietako bat. Hauen filosofia, kosta ahala kosta, gailur puntara igotzea da, askotan aurrean duten paisaiatz ohartu ere egin gabe.

Aurrekoa baino mendizale mota xelebreagorik ere badago, nik "familiarra" edo deituko nukeena. Maiz, aita izaten da espedizio honen buru, bideokamara eskuan, alaba txikia bizkarrean eta bihotzekoak emateko zorian dagoen amaginarreba atzetik dutela. Eguerdiko 12ak mendian ibiltzen hasteko ordurik egokiena ez bada ere, egun on eta lasaia pasatzeko mugitzen dira.

Eta, azkenik, mendizale gehienek ohiturak biltzen dituen taldearekin bukatuko dugu azterketa hau. Hauek goizean goiz esnatzeko ohitura dute, eguerdiko eguzkia ahal den neurrian ekiditeko. Nekatu ahala gelditu, eta etxean gertatutako otartekoa lasai-lasai jan ondoren, bueltako bidea hartzen dute. B

"Mendizale mota

xelebreagorik ere badago.

Aita, bideokamara eskuan,

alaba txikia bizkarrean eta

bihotzekoak emateko zorian

dagoen amaginarreba atzetik"

■ barruan



Iñazio Irigoien

"Anphoblacht"eko argazkilaria

"Kanpotik gauzak ondo ikusi arren, Irlandan ez da bakerik lortu oraindik"

8. orrialdean.



Mikel Arakistain

Karateka

"Gipuzkoako txapelketan ondo ibiliz gero, Euskadikora joango naiz"

21. orrialdean.



Celia Gomez

Kizkur ileapaindegikoa

"Ilea ondo edukitzeko produktu onak erabili eta puntak sarritan moztu behar dira"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1551. Azaroaren 15ean San Francisco de Borjak meza eman zuen lehen aldiz Santa Anako ermitan.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1431. Azaroaren 20an Don Juan II.ak Gasteizi hiri izena eman zion.

1850. Azaroaren 19an Gasteizko Aurrezki Kutxa sortu zen.

1978. Azaroaren 21ean Jose Miguel Beñaran "Argala" hil zuten.

MUNDUAN GERTATUA

1819. Azaroaren 19an El Prado-ko museoa inauguratu zen.

1830. Azaroaren 18an Belgika Holandatik banandu zen.

1869. Azaroaren 17an Suezeko kanala inauguratu zen.

1936. Azaroaren 20an Buenaventura Durruti iraultzaile anarkista hil zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzita 13

4-15-20-32-37-39 (osag.6/er.5)

Astelehena 16

2-4-16-19-28-47 (osag.3/er.0)

Martitzena 17

8-12-14-35-39-49 (osag.48/er.2)

Eguaztena 18

4-9-23-25-41-44 (osag.45/er.2)

PRIMITIVA

Zapatua 14

10-15-31-36-42-44 (osag.33/er.5)

Domeka 15 **Gordoa**

13-22-23-27-29-30 (osag.1/er.4)

ONCE

Eguakitzita 13: 26.172 (K. seriea: 026)

Astelehena 16: 30.255

Martitzena 17: 18.131

Eguaztena 18: 54.305


BESTE BATZUK

Aek eguneko bidaiar Karibera:

21.129

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguakitzean eguraldi hodeitsu izango badugu ere, zapatu eta domekan hobera egingo du eta urdinguneak nagusituko dira, halere, goiz partean behelainoa izango da. Tenperaturak gora egingo du apurba. Haizeak hegotik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: azaroak 19



Ilgora: azaroak 27



Ilbete: abenduak 3



Ilbehera: abenduak 10

Eguzkia

Domeka, azaroak 22



Sortu: 08:11



Gorde: 17:55

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 12	13	8	7,8
Eguakitzita 13	15	7	5,6
Zapatua 14	12	11	10,4
Domeka 15	12	9	0,7
Astelehena 16	14	6	-
Martitzena 17	11	1	-
Eguaztena 18	9	3	-

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Alkantzuz

Lanerako gaitasuna eta indarra.

- Alkantzuz ederreko iru mutil gazte badaukazu etxian beintzat eta etzare kejtazeko moduan.

- Zuek daukazuen alkantzuakin, da ori baiño ganora geixao ez eukitzia tristia dok pa.



JOSU OKINA



Ainhoa de Marcos
Azaroaren 20an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Agustina Rodriguez
21ean urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak.



Josefa Ruz
Azaroaren 17an 46 urte. Urte askotarako! Ilobak.



Manuel Moreno
Azaroaren 23an 33 urte. Urte askotarako! Emaztea, Miriam eta Christian.



Arantazu Juaristi
Azaroaren 18an urtebetetzea. Urte askotarako! Ion, Ane eta Paul.



Ion Zangitu
Azaroaren 18an 14 urte. Urte askotarako! Arreba aine eta lehengusu Paul.

Farmaziak

Eguakitzita 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 22:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 23:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 24:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 25:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 26:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 22: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Jabi Burgos
Azaroaren 22an urtebetzea. Urte askotarako! Guren, Amaia, Ane eta Alex.



Ion Azpiri
Azaroaren 23an 19 urte. Urte askotarako! Katalin, Hodei eta Aitzol.



Maite Astaburuaga
17an urtebetzea. Zenbat, 16? Urte askotarako! Humphrey eta Motruo.



Aritz Unzueta
Azaroaren 15ean 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Julen.



Mikel Gallastegi
Azaroaren 18an urtebete. Urte askotarako! Grasoak eta familia.



Martina Agirre
Azaroaren 12n 84 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Nerea.



Maitane Juaristi
Azaroaren 20an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



Maritxu Urbistondo
Azaroaren 9an 55 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Julen Muruamendiarez
24an 5 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Maitane.



Olatz Zabaleta
Azaroaren 21ean 4 urte. Urte askotarako! Nekane eta etxekoak.



Martin Telleria
Azaroaren 17an urtebete. Urte askotarako! Familia.



Milagros Agirre
antzuolarrak, azaroaren 27an urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



Ane Lizarralde
Azaroaren 18an 7 urte. Urte askotarako! Familia.



Tzeitel Martin
Azaroaren 20an 21 urte. Urte askotarako! Koadrilakoak.



Migel Agirre
antzuolarrak, azaroaren 16an urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



Andres Ezpeleta
antzuolarrak, azaroaren 30ean urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



Joseba Anton
Azaroaren 23an 2 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Amaia.



Jose Manuel Urbieto
21ean 51 urte. Urte askotarako! Emaztea eta Iñigo.



Alazne Ugartebruru
Azaroaren 15ean 10 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



Leire Murillo
Azaroaren 23an 22 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta anaiak.



Maitane Mujika
Azaroaren 13an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Dani Escobar
Azaroaren 11n urtebetzea. Urte askotarako! Yessica, Brian eta etxekoak.



Mary Martin
Azaroaren 25ean urtebetzea. Urte askotarako! Ander, Oihane eta Nerea.



Oihane Arzakonaga
Azaroaren 22an 5 urte. Urte askotarako! Familia, amama eta aitita.



Maddi Arzamendi
7an 19 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Ane eta amama.



Isabel Belar
Azaroaren 19an 84 urte. Urte askotarako! Seme-alaba eta bilobak.



Mila Agirrezabal eta Mari Karmen Agirrezabal
Azaroaren 20an urtebetzea. Urte askotarako! Jone, Nerea, Olatz eta etxekoak.



Amaia Iparragirre
Azaroaren 10ean 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Paco Molina
Azaroaren 22an urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak eta Markel.



Felix Garcia
Azaroaren 20an urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak eta Mikel.



Eduardo Diaz
Azaroaren 10ean urtebetzea. Urte askotarako! Etxekoak eta Mikel.



Angel Ortiz
Azaroaren 11n 19 urte. Urte askotarako! Lagunak.



Irati Azkarate-Askasua
Azaroaren 16an 11 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Remi Aranzabal eta Mikel Aranzabal
Azaroaren 21ean 39 urte eta 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

ESKER ONA

Cirilo De Pedro Allende

Bergaran hil zen
1998ko azaroaren 12an,
93 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno! Eskerrik asko sendikoen izenean.

hildakoak

BERGARA

Cirilo De Pedro Allende

Azaroak 12, 93 urte

Eugenia Igarza Iñarra

Azaroak 15, 89 urte

Luis Bideluze Barandiaran

Azaroak 17, 74 urte

Mercedes Amo Traspaderne

Azaroak 17, 72 urte

Joakin Asiain Erro

Azaroak 17, 57 urte

jaiotakoak

BERGARA

Mariñe Diaz Arizmendi

Azaroak 7

Maidier Gago Juaristi

Azaroak 8

ANTZUOLA

Ane Cabrera Nuñez

Azaroak 11

ANTZERKIA

► **Oihulari Klown** taldearen "Klownferentzia" antzezlan gaur, eguakitza, 21:30etan Azpeitiko Enparan Dorretxean. Bihar, Porpol taldeak "Xolak badu lehoien berri" antzeztuko du 19:00etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian.

► **"El secreto de Lena"** umeentzako antzerkia bihar, zapatua, 17:00etan Elorrioko Arriola aretoan. Sambhu Teatro taldearekin.

MUSIKA

► **Bruce Dickinson eta Pink Cream 69** taldea bihar, zapatua, 21:00etan Jam aretoan. 2.500 pezeta.

► **Oskorri eta Kukubiltxo** bihar, zapatua, 18:00etan Eibarko Ipurua Kiroldegian.

► **Udal Musika Bandaren** Santa Zeziliako kontzertua domekan 12:30etan Frontoian.

ERAKUSKETAK

► **Beart-ek Eginen alde** antolatutako erakusketa Kultur Etxean azaroaren 29ra arte.

► **Luis Laskurainen margo erakusketa** Logroñoako Breton galerian

KONTZERTUA

Opus III Percussion Ensemble eta Bergarako Orfeoia

Noiz: zapatuan, 22:30etan
Non: Udal pilotalekuan
Sarrera: 1.000 pezeta; 700 langabetu txartela edo Gazte Txartelarekin

Begarako Orfeoia, bere sorreraren 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, Orfeoiko kide izan diren guztien omenezko Santa Zeziliako kontzertua izango da bihar zapatua Udal Pilotalekuan. Bertan Jesus J. Soldevillak zuzentzen duen Opus III Percussion Ensemble taldeak eta Bergarako Orfeoia hartuko dute parte. Kontzertuaren aurretik, arratsaldeko 5etan, aipatutako bi taldeek herriko ikastetxeetako gaztetxoei zuzendutako kontzertu pedagogiko bat ere eskainiko dute (sarrerak 200 pezeta salduko dira).

Gaueko emanaldian, lehenbizi Euskadiko Orkestako Opus III Percussion Ensem-

ble taldea taularatuko da eta Jesus J. Soldevillaren zuzendaritzapean, honako lanak interpretatuko ditu: Manuel de Fallaren "El circulo magico (El amor brujo)", Enrique Granados-en "Danza española nº5" izenburuko pieza, Johann eta Josef Strauss-en "Pizzicato polka" eta, azkenik, Walten konpositorearen "Popular song (De Façade)". Ondoren, bi taldeek Soldevillak egokitutako konposizio ezagunak eskainiko dituzte elkarrekin, Maria Jesus Ugalde (sopranoa), Julio Unamuno (tenorea), Jagoba Fadrike (baritonoa) eta Patxi Azpiri (pianoa) bakarlariren laguntzaz. Programa honako hau izango da: "West Side Story" (Leonard Bernstein), "La verbena de la paloma" (Breton), "La del soto del parral" (Sutullo eta Vert), "Agua, azucarillos y aguardiente" (Chueca eta Valverde) eta, bukatzeko, Arrietaren "Marina" izenburuko brindisa. B



Begarako Orfeoiko kide izandakoak omenduko dira biharko kontzertuan.

(San Agustin 35), abenduaren 5era arte. Aste barruan, 18:00etatik 21:00etara.

LEHIAKETAK

► **"Dana lanbrotute ikustot"**, Mitxel

Sarasketaren omenezko argazki lehiaketa. Lanak (zuri-beltzean zein koloretan) azaroaren 28ra arte jasoko dira Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren kalea, 3). Lehen hirurek sari bana jasoko dute.

DEIAK

► **Jone Larrañagak** idatzitako **"Antzuolako hizkera"** liburuaren aurkezpena domekan, azaroak 22, 12:30etan Antzuolako Udaletxean.

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ONENA TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

► **Hitzaldia: "Gure seme-alabak, beraien motibazioa eta ikastetxea"**

eguztenez, hilak 25, 18:30etan Kultur Etxean. Hizlaria: Luis Mari Elizalde EHUko irakaslea.

► **Alargunen elkarteko batzar orokorra** bihar, zapatua, 20:00etan Seminarioko lokalean.

► **Elkarteen arteko karta txapelketako finalerdiak eta finala** bihar, zapatua, Santa Ana elkartean, afalostean. Hermandad Pertxa, Goxo-Pe, Pertxa eta Santa Ana iritsi dira finalerdietara.

► **Ertamerikarako laguntza:** Oscar Romero solidaritate batzordeak eta Komite Internazionalistak taldeak Banco Guipuzcoanon eta Euskadiko Kutxan kontu korronte bana ireki dute.

► **Kapirixo elkarteko batzar orokorra** eguakitzean, azaroak 27, 19:00etan UNED-en.

► **Jubilatuaren egun osoko irteera** Lizarrara azaroaren 29an. Izen-ematea Jubilatueta. 943 76 21 40.

► **Eibar-Gasteiz autopistaren kontrako manifestazioa** Gasteizen, zapatuan 19:00etan. Beheko Estaziotik 17:30etan autobusa irtengo da. Antolatzailerak: Gatzaga-Landaren Aldeko Taldea, Eguzki eta EHNE.

KINTADAK

► **1934an** jaiotakoan (1955ko kintoak) bazkaria bihar, zapatua, Antxonin jatetxean 14:45etan.

► **1938an** jaiotakoan anaiarteko eguna azaroaren 28an. Usondon taldeko argazkia aterako da 14:15etan eta jarraian bazkaria Antxonin. Izen-ematea 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia), 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edota 943 76 24 67 (Jose Luis Gabilondo) zembakietan hilaren 23a baino lehen.

► **1952ko** kintoen bazkaria azaroaren 28an Antxonin jatetxean. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin bertan.

► **1945ean** jaiotakoan afaria Antxonin azaroaren 28an. Izen-ematea Antxonin (2.000 pezetako depositoa).

► **1944an** jaiotakoan afaria Azpeitxi jatetxean azaroaren 28an. Aurretik, 19:00etan, meza San Pedro parrokian. Afarirako izen-ematea 943 76 42 08 (Arantza Aperribai) edo 943 76 23 70 (Sanchez ileapaindegia) telefonoetan hilaren 23a baino lehen.

► **1957an** jaiotakoan afaria Sirimiri jatetxean azaroaren 28an 21:30etan. Izen-ematea Intxorta tabernan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

El show de Truman

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Cuatro dias de septiembre

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Los años barbaros

Eguakitza: 22:00.

El negociador

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Laburmetraien selekzioa

Eguena: 22:00

EIBAR. Unzaga

El crimen perfecto

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:15.

EIBAR. Rialto

Los miserables

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 22:15.

ELORRIO. Arriola

Los amantes del Circulo Polar

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

La tribu de los Krippendorf

Domeka: 17:00.

Hombres armados

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo

Cha cha cha

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

El negociador

Domeka: 16:45, 19:30, 22:00
Astelehena: 20:00.

EL SHOW DE TRUMAN

Zuzendaria: Peter Weir.

Aktoreak: Jim Carrey, Laura Linney, Ed Harris.

Peter Weir australiar zuzendaria (*Unico testigo*, *El club de los poetas muertos*) izugarriko arrakasta lortu du telebista kateen inguruko kritika zorrotz honekin. *Truman Burbank* (Jim Carrey), bera jakin gabe, jaio zenetik tele-sail arrakastatsu bateko protagonista nagusia dugu eta bere inguruko guztia, beraz, gezurra besterik ez da...

J I M C A R R E Y



CUATRO DIAS DE SEPTIEMBRE

Zuzendaria: Bruno Barreto.

Aktoreak: Alan Arkin, Pedro Cardoso, Fernanda Torres.

Benetako gertakarietan oinarrituta, filme hau 1996ko Oscarretarako izendatua izan zen. 1969an Brasilen diktadura indarrean zegoen eta gazte batzuk, nazioartean presioa egin nahirik, Estatu Batuetako enbaxadorea bahitu zuten. Filmeak ekintza hark gazteen bizitzan izan zuen eragina aztertzen du.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

lñazio Irigoien bergararra 1993. urtean joan zen Irlandara eta Cork-en eta Westford-en euskaldun batzurekin batera arrantza negoziotan lanean izan ondoren, azken bi urteak Dublin-en eman ditu. Gaur egun kirol denda bateko lana Sinn Fein alderdiak kaleratzen duen Anphoblacht aldizkari argazkilari lanarekin tar-tekatzan du.

G. Zela hasi zinen "Anphoblacht" aldizkarian argazkilari lanetan?

E. 1996an Europako lehen ministroen batzarra izan zen Dublinen eta Senideak-ekoak bertara etorri ziren gose greba egitera. Hori zela eta, Sinn Fein eta beste mugimendu alternatibo batzuetako kideak ezagutzeko aukera izan genuen eta jende horrek Euskal Herriko egoerarekiko interesa azaldu zuen. Presoen egoera, abertzaleen eskakizunak eta bestelako galderak planteatu zizkiguten eta oinarritzko informazioa emateko ekitaldi batzuk antolatu genituen. Horietako batean "Anphoblacht" aldizkari jendea ezagutu eta bertan argazkilari lana egiteko aukera suertatu zitzaidan.

G. Zelako aldizkaria da "Anphoblacht"?

E. Sinn Fein alderdiaren prentsa organoa dela esan daiteke, 20 orrialde inguruko astekaria. Anphoblacht hitzak, irlandesez, errepublika esan nahi du. Bertan, lojikoak denez, politika gaiak dira nagusi baina drogak, arrazismoa, etxebizitza edota emakumearen inguruko gaiak ikutzen hasi dira gero eta gehiago.


G. Lan interesgarria izango da...

E. Guztiz. Argazkilari lana oso interesgarria izateaz

IÑAZIO IRIGOIEN

"Anphoblacht"eko argazkilaria

"Kanpotik gauzak ondo ikusi arren, Irlandan ez da bakerik oraindik"



Irigoien 1993an joan zen Irlandara eta Bergaran egon berri da.

gain, jende asko ezagutzeko aukera eman dit: Mary McAleese presidentearen egoitzan ere izan ginen argazkiak ateratzen, Clinton EEBBtako presidenteari ere urrian egin zitzaion harrean, Ipar Irlandako hauteskundeak ere kubritu genituen eta Gerry Adams-ekin egoten gara askotan Hori, nolabait esateko, "gizarte al-

"Irlanda eta Euskal Herriko egoeren artean antzekotasuna badago. Baina han, bi komunitateak guztiz banatuta daude"

tuko" lana litzateke. Gizar-tean dauden bestelako egoerak ere ezagutu ditugu, droga, arrazismoa edota pobreziarekin lotutakoak.

G. Irlandako bake prozesua gertutik jarraituko zenuen.

E. Bai baina jendeak uste baino luzeagoa izan da. Irlandan "El Pais" egunkaria irakurri edota Radio Nacional entzuten genuenean, bake prozesua ezerezetik sortua zela ematen zuen eta kontua da gobernu britaniarraren eta IRAren arteko hizketaldiak aspaldian hasi zirela. Urtetako prozesu luze baten ondorioa izan da bake prozesua. Hala ere, hemendik gauzak ondo ikusten dira baina nahiko gaizki daude oraindik. Alderdi bakoitzak hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera, Sinn Fein-i bi ministro izatea dagokio baina IRAk armak entregatzen ez dituen bitartean ez dute gobernuan sartzerik. Bestalde, poliziaren %90a protestantea da eta gainontzeko %10 lealista da. Atera kontuak. Oraindik gauza piloa dago egiteko. Hala ere, autodeterminazio eskubidea jasota dago han eta itxura denez hainbat komunikabidek ez dute hori ikusi nahi.

G. Irlanda eta Euskal Herriko egoerak parekatu izan dira.

E. Antzekotasuna bada. Gertatzen da hango bi komunitateak guztiz banatuta daudela, alboko auzokoekin sekula hitzegin ez duen jendea dago eta hori oso gogorra da. Bestalde, Dublinen Ipar Irlandakoa ez dute euren arazo bezala ikusten eta IRAren aurkako jarrerak ere badira. Bake prozesuarekin gauzak aldatzen hasi dira eta Sinn Fein-ek adibidez Ipar Irlandan eta hegoaldean hazkunde nabarmena izan du. B

Ia zazpi milioi batu dira orain arte Mitch-ek kaltetutakoen alde

Bergarako Udalak hiru milioi pezeta emango ditu

Mitch ekaitzak eragindako hondamendia jasan dutenei laguntzeko 3 milioi pezeta bideratzea erabaki zuen Bergarako Udalbatzak joan zen astean.

Laguntza ze talde edo erakuderen bitartez egingo den erabakitzeke dago oraindik. BERRIGARAK jakin duenez, gaur eguakitzia, Oscar Romero, Fisc eta Komite Internazionalistak taldeekin biltzekoak ziren Gizarte Ongizate Zerbitzukoak diru laguntza nola bideratu erabakitzeke.

Bestalde, Ertamerikako kaltetuei laguntzeko beste hainbat ekimen bultzatu dituzte bergararrek. Aranzadi Ikastolako ikasle eta irakasleek, esate baterako, 735.519 PTA batu zituzten joan zen astean eta Oscar Romero solidaritate batzordeak Banco Guipuzcoanon duen kontu korrontean sartu zuten dirua.

BERRIGARA Mikel Andueza El Salvadorren dagoen apaiz dominiko bergararrekin harremanetan izan zen eguastenean eta berak azaldu digunez orain arte ia



Ertamerikako kaltetuei laguntzeko hainbat ekimen landu dira. ARTXIBOA

lau milioi pezeta batu dituzte Oscar Romero solidaritate batzordeak Banco Guipuzcoanon zabaldu duen kontu korrontean. "Eguastenera arte ia lau milioi pezeta jaso ditugu eta diru horrekin 300 familiarentzako, hau da, hilabete baterako 1.800 lagu-

mentzako, janaria lortu da; guztira, 48,34 tona janari (arroza, hartoa, babak, esnea eta olio). Horretaz gain, ur-putzuak garbitzeko bonba bat erosi ahal izan dugu. Gironatik eta beste toki batzuetatik ere laguntza jasotzeko itxaropena dauka-

gu. Gure asmoa 500 familiarentzako (3.000 lagun) janaria bideratzea da. Bestalde, udaletatik jaso dezakegun laguntzarekin lehenbailehen etxebizitzak eraiki nahi ditugu" esan digu Mikel Anduezak. Oro har Bergararrek erakutsitako eskuzabaltasuna eta, bereziki, Aranzadi Ikastolako haurrek erakutsi dutena azpimarratu nahi izan du Mikel Anduezak.

Bestalde, Mariaren Lagundia ikastolako eskolaurreko neska-mutikoei, bakoitzak bere aldetik ekarri duenarekin, saskia osatu dute eta hil honen 27an zozketa egingo dute. Batzen den dirua Fisc Nazioarteko Elkartasunerako Fundazioak Kutxan ireki duen kontu korrontean sartuko dute. Fisc erakundeak aurtengo Gabonetako kanpaina (postal salmentata...) batutako dirua ere Erdialdeko Amerikara bidaliko da. B

Kaltetutakoei laguntzeko ireki diren zenbait kontu korronte:

Komite Internazionalistak: Euskadiko Kutxako 3035 0134 40 13400173 8.

Fisc-Nikaragua: Kutxako 2101 0014 22 001078392 6.

Oscar Romero: Banco Guipuzcoanoko 01 00940620.

Biko
BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Gipuzkoako Diputazioari bidegorriak eraikitzeke eskatu dioten taldeetako ordezkariak.

Ynestrillasen jarraitzaileak Bergaran domekan

Ricardo Saenz de Ynestrillas ultraeskuindarra eta bere jarraitzaileak Bergaran izan ziren joan zen domeka eguerdian. Leihotetan Espainiako banderatoak zeramatzaten lau furgoneta, Amillagatik sartu eta Zubieta eta Masterreka zeharkatu ondoren, Bolurantz abiatu ziren, buelta eman eta berriz ere saihesbiderako bidea hartzeko. Karabana ikusi zuten herritarren artean ustekabea nagusitu zen; halere, askok amorrua ere sentitu zuten ultraeskuindarrak Bergarako kaleetan ibili izanagatik.

Alianza por la Unidad Nacional-eko kideek "birkonkista nazionalaren" eta "Españaren berreskurapenaren" aldeko esku-paperak banatu zituzten. Ertzaintzaren patrol batek atzetik jarraitu zuen Ynestrillasen jarraitzaileen lau furgoneten ibilbidea. Ultraeskuindarrek Hernanin ekitaldi politikoa egin nahi zuten, baina Ertzaintzak ez zien laga. Hori dela eta, Gipuzkoako hainbat herritatik zehar ibili ziren euren aldarrikapenak zabaltzen.

Bergarako HBko zinegotzi taldeak ez-ohizko eta presazko deia egin du Udalbatzak gaia egin du azter dezan. Udalak Ynestrillasen jarrera probokatzailerak salatu dezala, pertsona non grata izendatu dezala eta Ertzaintzaren jokoera publikoki salatu dezala eskatuko du HBk.

Bizikletaz eta oinez ibiltzeko bidegorriak eskatu dituzte

Gipuzkoako 20 taldek egin diote eskaria Diputazioari

Gipuzkoako 20 taldek bizikletaz eta oinez ibiltzeko bidegorriak eraikitzeke eskakizuna luzatu diote Diputazioari. Edorta Bergua Kalapie elkarteko presidentek eta Jose Mari Eraña Arrasateko Lurtx elkarteko kideak "Lehendabizi" proiektuaren berri eman zuten joan zen astean Donostian. Gipuzkoa guztia zeharkatuko lukeen bidegorri sarea lortzea da helburua, "bizikleta erabiltzaileok gaur egun ez daukagun segurtasuna eta erosotasuna izateko" aipatu zuen Berguak.

Proiektuaren bultzatzaileek bidegorri sarea egiteko irizpide teknikoak eta finantziarioa aztertzeke eskatu diote Diputazioari. Bergua-

ren hitzetan, "gaur egun Gipuzkoan 17 kilometro bidegorri besterik ez dago, inolako loturarik gabe eta gure probintzian distantzia oso egokiak daude herri batetik bestera bizikletaz joan ahal izateko. Bizitza kalitateak ere gora egingo luke bizikletaren erabilera handituz gero".

Deba Arroa, inflexio puntua

"Lehendabizi" proiektuak bidegorri sarea eraikitzeke trenbide zaharra erabiltzea defenditzen du. Zentzu horretan, Deba Arroa inflexio puntu bat izan daiteke bidegorri sarearen etorkizunean. Jose Mari Erañak azaldu zuenez, "Eibar-Gas-

teiz autopistaren inguruan, Interbentzio Gune Partehartzaileen prozesuan, onesten sozial handiena trenbide zaharra berreskuratzeko ponentziak lortu zuen eta hori izan daiteke bidegorri sarearen abiapuntua. Deba bailaran baldintza egokiak daude lanean hasteko". Erañak azpimarratu zuenez, "gipuzkoarrok mendiko botak eta bizikletarekin jaiotzen gara eta proiektua sinatu dugun taldeok bizikleta garraibide eta aisialdirako tresna moduan aldarrikatu nahi dugu". Bergaran asko dira trenbide zaharrean pasiatzen ibiltzen direnak; ez hainbeste bizikleta erabiltzen dutenak, bidea ez baitago oso egoki. B

Telefonoekin iruzurra egiten ari direla dio Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak udaletan eta beste hainbat erakunde publikotan banatu duen zirkular batean azaltzen denez, iruzur telefonikoa atzeman du Barne Sailak. Iruzurrak enpresei ez ezik partikularrei ere eragiten ei die.

Barne Sailak egindako ikerketen arabera, iruzurgileek Telefonicarene edo ATT enpresaren izenean telefonotik deitzen dute eta telefono linea aztertzen ari direla esaten dute. Botoitxoekin markatzeko telefonoa duten galdetzen diote erabiltzaileari eta, horrela izanez gero, 9 eta 0 zenbakiak, eta # ikurra duen botoitxoa sakatzeko eskatzen diote. Hau egin ostean, telefono linea konprobatu dutela eta arazorik

ez dagoela esaten diote, eta eragozpenak barkatzeko eskatuz, eskerrak emanez agurtzen dira.

Operazio honekin, iruzurgileek erabiltzailearen telefono lineari pasatzen dizkiote egiten dituzten telefono dei guztiak eta, ondorioz, dei horien faktura

erabiltzaileak ordaindu beharko du.

Telefonikak, oraingoz, ez ei daki iruzurrari nola aurre egin eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak informazio kanpaina jarri du martxan, ahal den neurrian era honetako iruzur kasuak ekiditeko. **B**



Telefono botoitxuekin egiten ei dute iruzurra.

Bide-seinaleak ezabatzeagatik epaituak

Joan zen eguenean

Euskal Herrian Euskaraz taldeko bi kide epaitu zituzten Bergarako epaitegian, erdarazko bide-seinaleak ezabatzeagatik.

Bi gazteak joan zen eguenean epaitu zituzten eta fiskalak bakoitzari hamar mila pezeta eta beste 7.240 PTA seinaleetan egindako kalteengatik eskatu zituen; defentsak bi gazteen absoluzioa eskatu zuen. Epategiaren kanpoaldean 60 bat lagun elkartu ziren epaiketarengatik protesta egiteko. Aurten go urtarrilean Ertzaintzak gaztelarazko bide-seinaleak pinturaz margotzen zebiltzan I.M. eta M.A. gazte bergararrak atzeman zituen Bergarako saihesbidean.

Eginen aldeko merkatua zapatuan

Eginen alde dirua batzeko bigarren eskuako materialaren merkatu txikia jarriko da zapatu goizean Plazan. Herritarrek lagatuko materiala (jantziak, liburuak...) jarriko da salgai.



HEZKUNTZARI BURUZKO JARDUNALDIAK. San Martin Agirre ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatu dituen hezkuntzaren inguruko jardunaldien barruan, "Telebista, bideoa... kaltegarriak al dira?" gaiari buruz jardun zuen joan zen martitzenean Kultur Etxean Mikel Usabiaga Mondragon Unibertsitateko irakasleak. Hitzaldia oso interesgarria gertatu zen, baina ez zen espero adina jende hurbildu.

Datorren martitzenean, hilak 25, "Gure semeak eta alabak, beraien motibazioa eta ikastetxea" gaiaren inguruan jardungo du Luis Mari Eleizalde Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak. Abenduaren 2an, azkenik, "Autoritatea-askatasuna: hezkuntz arazoa" gaia izango du hizpide Amaia Vazquez psikologoak. Hitzaldiok 18:00etan Kultur Etxean izango dira.

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskoziuri 6 Tf. 943 76 56 62

ZUBIAURRE
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atekak.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

Berrigara

344 zenbakia.
1998ko azaroaren 20a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: **JARDUN Elkarte**

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugarte, Uñai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

JUBILATUEN II. KULTUR HAMABOSTALDIA

“Beti emon leike pauso bat aurrerago” leloa gidari hartuta, eskaini berri dugu Bergarako eta Antzuolako herriari zuzendutako Jubilatuen II. Kultur Hamabostaldia. Guztira 12 ekitaldi antolatu dira: egitarau-liburuxkaren azalerako irudia aukeratzeko kartelen lehiaketa, kartelen eta esku-lanen erakusketa, 4 hitzaldi, mahai-ingurua, euskal antzerki emanaldia, bertsolari gazteen saioa, Oñatira bisitaldi gidatua, Euskal Herriko musika tresnen erakusketa eta demostrazioko joaldia, merienda eta dantza.

Programa zabal eta bariatua eskaintzen saiatu gara, herriar guztientzako, bakoitzak bere interesen arabera parte hartzeko aukera izan zezan.

Ekitaldi guztietan parte hartu duen jende kopurua 1.300 pertsona-ingurukoa izan da.

Guk oso balorazio positiboa egiten dugu Hamabostaldiaz, bereziki bi arrazoiongatik:

I. Hamabostaldiko goiburua (“Erretiratuta egotetik presente egotera”) egia bihurtzeko bidean “pauso bat aurrerago” emateko balio izan du.

Hitzaldietan eman diren mezuak kalitate haundikoak eta bizigarriak izan dira. Hona hemen hitzaldietako ideia nagusiak:

Fedearen inguruan: Jubilazio-garaian gogoetarako asti gehiago izaten da eta horrek Jainko zorrotz batekin barik Jainko adiskide batekin elkartzeko bidea eskaintzen du. Fedea garbitu eta Jainkoaren benetako aurpegia ezagutzeko garaia da.

Zoriontasunaz: Pertsona zoriontsu baten ezaugarriak nagusienak bere barruko pakea eta bizitza serenidadez hartzea dira, bizitzan proiektu bat izatea eta gertakizun on zein txarrei bere zentzua aurkitzea. Gertakari haundien zain egon gabe, eguneroko gauza txiki-kin disfrutatzeak asko laguntzen du zoriontsuago izaten.

Boluntariotzaz: bai gure gorputzak eta bai gure buruak geldi edukitzeak dituen arriskuak uxatu beharrean gaude edadetuok, gizartean parte hartu beharra dugu. Garbi izan behar dugu hainbat behar ditugula: besteren estimulua eta onarpena jasotzearena eta denbora organizatua edukitzearena, bereziki. Boluntariotza behar horiei erantzuteko modu bat da: harremanak ugaltzen dituela-

ko, adiskidetasun berriak sortzen dituelako eta denbora libre bestea batzuentzako baliagarri eta norberarentzako atsegin-iturri izango den modu batean enpleatzeko aukera ematen duelako.

Boluntariotza-espereintziei buruzko mahai-inguruaren egunean, boluntario-lanetan parte hartzeko prest zegoen galdetu genion jendea eta guztira 12 lagunek eman zuten izena: 9 emakumezko eta 3 gizonezko. Bihoakie gure zorionik beroena.

Hamabostaldiari amaiera emateko, herri-bazkari bat izan genuen eta postre garaian, Bilboko Guggenheim museora joateko bidaiak zozketatu genituen, 26 bikoterentzat. Ondorioz, esan genezake konbentzitututa gaudela “beti eman leikela pauso bat aurrerago” eta horrek bultzatzen gaituela edadekoentzako zerbitzu berriak sortzera. Bukatzeko, gure eskerrik beroan eman nahi genizkieke ekitaldietan parte hartu duten guztiei eta baita komunikabideei ere: Berrigarari, prentsari eta irratiei oso eginkizun inportantea bete baitute, Hamabostaldiko ekitaldiak herritarrei iritsiarazteko.

Tomasza Zabaleta

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zer deritzozu Artekaleko bizilagunek kalea trafikoari ixteko egin duten eskakizunari?



Mari Cruz Gantxegi

Idea ona iruditzen zait kale oso estua delako, nahiko arriskutsua da. Hirigune historikoaren barruan dagoenez, kontserbatzeko neurriak hartu beharko lirateke.




Santiago Arribas

Ondo egongo litzateke baina ez dakit trafikoa nondik bideratuko luketen. Ni gertuan bizi naiz eta egunero pasatzen naiz hemendik. Ez dago batere ondo.




Sara Mira

Gaur egun behintzat gaizki dago, estua da eta ez dago lekurik ibiltzeko. Trafikoari ixtea hobe izango litzateke-ela uste dut, kontu handiz ibili beharra dago eta.



Luis Angel Santiago

Alde bateko espaloia oso estua da eta bestealdean ez dago espaloirik. Segurtasun aldetik eta kaleari bizitasun komertziala emateko, ixtea ondo legoke.



Jesus Arregi

Ni Martokoa bizi naiz eta noizean behin bakarrik pasatzen naiz. Egia esan, trafikorik gabe hobeto egongo litzateke, gutxienez kamioiena kendu.



Julia Cifuentes

Urte askotan kamioiekin arazoak izan dira eta zerbait egin beharra dago. Etxera bidean egunero pasatzen naiz eta ondo ikusten dut trafikora ixtea.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Ana Ramirez erre-dakziora etorri zitzaigun joan zen egukiatzean protesta egiteko asmoz. Itxura denez, Anari irakurketa izugarri gustatzen zaio eta askotan etortzen omen da Kultur Etxera, liburuak irakurri edota kontsultatzeko asmoz. Anaren adierazita-koaren arabera, liburute-gitik atera ezin diren liburu askotan orriak falta dira eta jendeak boligrafoz markak egin ditu beste askotan. Ana Ramirezek liburu horietan kalteak egiten dituztenei errespeto pitin bat eskatu nahi die, ez dela ezer kostatzen fotokopia bat atera eta liburuja egoera onean laga, beste jende batek kontsultatzeko aukera izan dezan.

■ ikuspuntua: **aitziber azkondo**

Haurren ahotsa

Bergarako 8 eta 11 urte bitarteko haurrek euren eskubideen inguruko iritzia emango dute bihar, zapatua, boto eskubidea lehendabiziko aldiz erabiliz. Euskal Autonomi Erkidegoan 68.000 haur baino gehiago, botua ematera deitu ditu UNICEFek. Horien artean Bergarakoak. Haurren Eskubideen aldeko Hitzarmenean oinarrituz, mundu mailan bere gain hartu duen zeregina Hitzarmena ezagutzera ematea da.

Badakigu, gure gizarteko haurren beharrak eta hirugarren mundukoena guztiz ez-



berdinak direla. Baina gure haurrek ere badute zer esan. Galdetu diegu inoiz gure inguruko gazetxoei ze iritzi duten eurei eragiten dizkieten arazoei buruz? Aitortu zaizkien eskubide batzuen jabe direla badakite?

Arazo ezberdinen protagonista zuzenak izan ez arren, nagusiok konturatu barik, guk geuk eragin eta sortutako gatazketara bultzatzen ditugu, eurek, sufritzen ari direnaren berri izan gabe.

berdinak direla. Baina gure haurrek ere badute zer esan. Galdetu diegu inoiz gure inguruko gazetxoei ze iritzi duten eurei eragiten dizkieten arazoei buruz? Aitortu zaizkien eskubide batzuen jabe direla badakite?

Haurrak izango dira etorkizunean, lege-biltzarkide, kazetari, dendari, kirolari, alkate eta lehendakari. Hori dela eta, uste dugun baino garrantzia handiagoa dauka baloreetan oinarritzen den heziketa programa honen. Tolerantzarantz bideratutako edozein programak, etorkizuna ziurtatzen baitu.

Haurrak gizarteko sujetu garrantzitsuak dira eta, ondorioz, iritziak emateko garaian kontuan hartu behar ditugu. Hori da programak aztertu nahi duena. Buru txiki horietan zer dagoen. Zenbat eta gehiagok bozkatu, orduan eta iritzi gehiago izango ditugu. Beraz, aurrera eta erakutsi nagusioi haurren eskubideen sustapenak duen garrantzia. **B**

■ asteko menua: **arin jatexea**

Txipiroi-entsalada epela



IBON KEREJETA eta
MANOLO HERNANDEZ
Arin jatetxeakoak

OSAGAIK (5 lagunentzat)

- 12 endibia hosto
- Tomate bat
- Piper gorri erdi
- Piper berde erdi
- Letxuga, "lolo eta trebiso" (lau hosto bakoitzetik)
- Aguakate erdi
- Hamasei grosella
- Aza gorria julianan moztuta
- Zortzi txipiroi fresko
- Oliba olioia
- Sagar ozpina
- Gatza
- Tipulina

PRESTAKETA

- Txipiroiak garbitu, gatza eta olioia bota eta plantxan egin. Bitartean, letxuga eta "lolo eta trebiso" orriak garbitu; tomatea, aza gorria eta aguakatea xerra borobil fin-finetan moztu eta piperrak lauki txikitan zatitu.

MAHAIRA ATERATZEKO

- Plater handi batean, ertzean, tomatea eta endibia tartekatu eta plateraren erdian letxuga, "lolo eta trebiso" orriak eta grosellak jarri.
- Txipiroiak eginda daudenean, plantxatik atera eta bool batean ozpinetan jarri.
- Sartagin batean, oliba oliotan piper gorri eta berdeak potxatzen ipini eta, ondoren, txipiroiak bertara bota; bi minutu eduki eta atera.
- Txipiroiak banan-banan letxuga, "lolo eta trebiso" orrien gainean ipini eta goilara batekin piper zatiak entsalada guztian banatu.
- Azkenik, tipulin apur bat bota eta prest jateko!

■ adituena esanetan

Memoria lantzea

AMAGOIA MURUAMENDIARAZ, *mediku gerontologoa*

Adin batetik aurrera memoria galtzen hasten da, beste arazo batzuk memoriarengan eragin zuzena izaten dutelako. Bista eta entzumena gutxitu egiten dira eta, beraz, perzeptzioa ere bai. Jasotako informazioa egokia ez denez eta atentzioa galtzen denez, memoriarekin zailtasunak etortzen dira orduan. Adinaren ondorio lojikoak dira: gorpuztak lehengo moduan erantzuten ez duen moduan, buruko kapazitateari beste horrenbeste gertatzen zaio. Informazioa jasotzea, gordetzea eta burua ekartzea gero eta gehiago kostatzen da eta memoriarekin erlazionatutako arazoak agertzen dira. Gauza arruntak

ahazten ditugu ("non laga ditut giltzak?") baina gehienetan ez dira memoria arazo garrantzitsuak izaten.

Buruko gimnasia eginez memoria hobetu dezakegu. Burua aktiboki mantendu behar da: gurutzegramak, irakurketa, elkarrizketak edota telebistako lehiaketak proposak dira. Atentzioa lantzeko asoziazioak (ezagututako pertsonak ilobaren izena berdina dauka) edota bisualizazioak (begiak itxiz, gogoratu sukaldera sartu garenean giltzak non laga ditugun) gomendatzen dira. Beti ere lasaitasuna mantenduz, urduritasunak ez baitu laguntzen gauzak gogoratzeko orduan. B

■ bergarako gordailutik

ESPETXEA

Imanol Sorondo

Lenok dakigu nola espetxeratu eta hil zuten Angiolillo Bergaran, eta alkateari harrika egindako bi apaizetatik bat ere nola espetxera eraman zuten. Gertakizun hau baino 20 urte lehenago, 1629ko irailean, Oruesagastitar Pedro zegoen herriko zinezko gauzatzailea eta espetxe-zain, eta honek Gurpidetar Diego alkate jaunari espetxean zeuden tresnen eta gainerako gauzen kontua eman zion: hamar oin-burdin zeuden beraien txapekin; kate bat, bere pisu astuna, itxitura eta giltzarekin; sarraila gabeko beste kate bat; bi eskuburdin handi; beste bi txiki; harrapagailu bat bere itxitura

*1629ko irailean,
Oruesagastitar Pedrok
Gurpidetar Diego
alkate jaunari
espetxean zeuden
tresnen eta gainerako
gauzen kontua
eman zion*

eta giltzarekin; oinazegailua ("El potro" dio idazkiak); kutxamahi bat atzealdeko etxean; intxaur oholezko lau jarleku handi; gela itxuan zegoen zurezko kutxa. Espetxeak beheko solairuan Auzitegia eta sukaldea zituen eta goikokan, lotarako gelak, nagusiagoko batzuk tartean. Emakumezkoak goreneko solairu batean zeuden. Gela den-denak beraien itxitura eta giltzekin zeuden.

Tresnen eta ginerako gauzen kontua ematerakoan, Oruesagastitar Pedrok ohar bat zekarren: hanhemenka noraezean zebiltzan ibiltarientzako bazegoela beste harrapagailu bat ospitalean, alegia, hori ere bere itxitura eta giltzarekin. B

Argazki rallyko irabazleak

Joan zen **urriaren 25ean Bergaran izandako argazki rallyko sariak** banatu ziren eguakitzean **Pol-Pol** Argazki Taldearen Zabalotegiko lokalean. **Juan Mari Ibarzabal** azpeitiarrak eskuratu zuen lehen saria, **Antonio Valencia** donostiarra bigarren tokian sailkatu zen eta **Santos Vega** ermuarrak hirugarren saria eraman zuen. Herritar onena, berriz, **Jose Aguayo** Pol-Pol Argazki taldeko kidea izan genuen eta **Iban Gandiaga** gazteen arteko onena izan genuen. Aurtengo edizioan **25 partaide** izan ziren. Argazkian, **Jose Aguayok** "Iribarreak" gaiaren inguruan aurkeztutako argazkietako bat.



Animen eguna

*Itxura denez, osintxuarrek ez diete tradizioei butsik egiten: txekor bilketa Kofraixetan, ondorengo karidadea..., eta azaroan, berriz, Animen Eguna. Aurten ere, astelehenean, obiturari jarraituz, **gaztain erreak eta sagardoa** banatu ziren arratsaldean eta gauean, berriz, Osintxuko koadrilek afaria egin zuten bertako elkartean eta jatetxeetan. Aspaldiko obitura omen da Animen Eguna ospatzearena eta aurten ere menua tradizioak agindutakoa izan da kasu gehienetan: **azak, odolosteak, saibeskia eta gaztain erreak**. Ez dago batere gaizki aste bonetan izan dugun botzari aurre egiteko...*



Gatzagan antzarra harrapatu



Jabier Larrañagak eta Iñaki Olabarriak argazkiko antzarra ehizatu zuten joan zen azaroaren 7an Gatzagan. Iñakik eta Jabierrek beste antzar bat ere ehizatu omen zuten baina ez zuten etxera ekartzerik izan sakanetik behera joan zitzaielako. Hala ere poz-pozik itzuli ziren Bergarara argazkiko antzarrarekin. Antzarrak hiru kg.ko pisua zeukan eta zapatuan lagun talde batek dastatu ahal izan zuen San Blas elkartearen. Argazkian, ezkerretik esku-mara, **Jabier Larrañaga eta Unai, Iñaki eta Erlantz Olabarria**.



Zaborra

Adi Antzuolarrok!


Behar den unean dagokion gunear



Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Ostegunet

21:00etatik 22:00etara



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 26 zenbakia. 1998ko azaroaren 20a.

Produkzioa erakusgai

Pilotalekuan izango dira herriko 9 enpresen produktuak

Antzuolako Udalak, herriko hainbat enpresatan egiten dena ezagutarazteko ekimena izan du. Datorren asteburuan, azaroaren 28 eta 29an, erakusketak egingo du herriko pilotalekuan. Helburua garbia da: antzularrei Antzuola enpresetan egiten dena erakustea.

Herriko bederatzi enpresen produkzioa jarriko da pilotalekuan. Enpresa handi eta ez hain handietan egiten dena ezagutzera emateko helburuarekin antolatu da. Erakusketan Elay Taldea, Goizper, Matz-Erreka, Alzas Elektrizitatea, Talleres J. Navarro, Talleres Antzuola, Echaniz Kolak, Elco eta Lauko enpresak egongo dira. Udalaren ekimena izan den arren, proiektuan hasieratik herriko enpresen ordezkariak ere izan dira, erakusketa antolatzeke.

Jone Larrañagak, Udalaren teknikariak, azaldu digunez, "erakusketa ez da enpresaka egingo. Helburua produktuak erakustea denez, produktu horien arabera antolatuko dugu. Produkzioaren stand bakar bat egingo dugu, hortaz, bi lekutan produktu bera egiten baldin bada, bi produktuak elkarren ondoan egongo dira". Enpresa handi eta txikien arteko bereizketarik ez dugu egin nahi. "Guztiei, ahal den neurrian, aukera berdina eman nahi diegu. Horregatik antolatuko dugu erakusketa produktuen arabera eta ez enpresen arabera".

Pilotalekuan

Valen Moñux aparejadoreak azaldu digunez "pilotalekuan egingo den era-

kusketa honek 500.000 PTako aurrekontua dauka. Ordiziako Udalari eskatu zaizkio stand-ak eta horietxek jarriko dira pilotalekuan herriko enpresek euren produktuak jar ditzaten".

Erakusketaren lehenengo egunean, zapatuan, luntxa ere egingo da eta hori "enpresen kontura izango da".

Bestalde, herriko eskuz binakako pilota txapelketari dagokionez, asteburu horretan ez da pilota partidurik jokatu. Astebete atzeratuko dira eta finalerdia eta finala ere beranduago izango dira. Finalerdia abenduaren 12an jokatu da; finala, berriz, abenduaren 19an.

Ordutegia

Azaroaren 28an, zapatuan, irekiko da erakusketa arratsaldeko 18:00etan

eta 20:00ak bitartean hantxe izango dira bederatzi enpresetako ordezkariak euren produktuak erakusten. Luntxa arratsalde horretan egingo da. Domekan, berriz, eguerdiko 12:00etan irekiko da pilotalekua 14:00ak arte eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Lauko Torlojogintza: autoetarako azkoinak

Hamahiru urte daramatzate dagoneko Lauko Torlojogintza tailerreko bazkideek Lizarragako hiribidean lanean. Jose del Rio bergararrarekin batera beste hiru bazkide ari dira, Sevilla eta Bartzelona bezalako lekuetarako azkoinak egiten. Lauko Torlojogintza-koek Talleres J. Navarro eta Matz Errekarentzat ere lan egiten dute. →



Lauko Torlojogintza.




Echaniz Kolak



Talleres J. Navarro



Alzas Elektrizitatea.



Talleres Antzuola

➤ **Echaniz Kolak: gelatina, seboa eta kola**

Familiarteko tailer hau 1950ean sortu zen eta gaur egun Mamen Jauregik zuzentzen du. Lizarragako hiribidean duen lokalean, metalei distira ateratzeko erabiltzen diren gelatina industrialia, seboa eta kola ere egiten ditu. Mamenek Gipuzkoa eta Bizkaiko tailer txikiendako egiten ditu bere produktuak.

Talleres J. Navarro: azkoinak eta pieza bereziak

Lau langile dituen tailer honetan azkoin autoblokante arruntak eta planoen

araberako pieza bereziak egiten dituzte. Jose Navarrok 1972an sortutako enpresa Antigua auzoan dago 1982tik. 800 metro karratuko azalera dauka eta LAUKOekin ditu hartu-emanak. Bere produktuak ibilgailuetan eta makina erremintan erabiltzen dira.

Alzas Elektrizitatea: motorrak eta konponketak

Bost langile ari dira motorrak egin eta konpontzen dituzten tailer honetan. Gaur egun lantegiaren azalera handituzko proiektua dute eskuartean, eta gaur egun dituen 225 metro karratutik 410 izatea lortu nahi dute. Francisco Alzasek

1969an ireki zuen tailerra, eta urte hauetan Matz Errekarentzat hainbat motor egiteaz gain, Elay, Balzers, Goizper eta Elcorentzat ere egiten dituzte konponketak.

Talleres Antzuola: pasadoreak eta ferreterietarako gaiak

Sei langile dituen tailer honetan pasadoreak eta ferreterietan saltzeko produktuak egiten dira. 1963an sortu zen tailerra Lapatza Etxeberriko etxean eta gaur egun 700 metro karratu ditu Kalegoin. Juan Cruz Gezalagak zuzentzen duen lantegia CAF eta RENFE bezalako lantegiak ari da lanean.



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak



IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Antzuolako Hizkera

Jone Larrañaga antzuolarrak egin berri duen Antzuolako Hizkera liburuaren aurkezpena egingo da azaroaren 22an, domekan, 12:30etan.

Aurreko Kontuolan berarekin berba egiteko aukera izan genuen eta hantxe eman zigun liburuaren berri.

Gaztainerre jana

Santa Zezilia eguneko beste ekitaldieta-ko bat gaztainerre jana izango da. Herriko plazan izango da eta Gezalaga anai-arrebak alaituko dute arratsaldea.

XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" lemapean egiten ari den kanpainaren berri emateko bilera egingo da. Orain dela 20 urte egin zen Bai Euskarari kanpainaren jarraipena izan nahi du ekimenak. Helburua: euskararen normalizazio prozesua azkartzea eta horretarako gizarteko hainbat agente sozial eta ekonomiko inplikatzeko euskararen normalizazio prozesuan. Antzuolan ere heldu nahi zaio kanpainari. Bilera egingo da eguaztenean, azaroak 25, 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan. Herriko sindikatu, kooperatiba, taberna, elkarte eta Ikastetxeko eta Udaletxeko ordezkariaren bat agertzea komeniko litzatekeela diote antolatzaileek. Dena den, bilera kanpainan parte hartu nahi duen guztiari dago zabalik.

Diapositiba emanaldia

Datorren abenduaren lehenean, martitzena, diapositiba emanaldia egongo da zine areotan. Arrola mendizale elkarteak, Jose Ramon Agirren gonbidatu du K-2 izeneko emanaldia eskantzera.

"Marronek" gainera K-2 mendiaren garzkiak jarriko ditu ikusgai, azaroaren 28 eta 29 Udaletxeko Pleno Aretoan.

Santa Zezilia eguna

Domekan izango da Santa Zezilia eguna. Hori dela eta, herriko abesbatzak kontzertua eskainiko du meza ostean. Lehenik eta behin, meza orduan Erruki eta Aita Madinaren Aita Gurea abestuko dute eta ondoren, kontzertua hasiko da elizan bertan. Euren egunerako aukeratu dituzten abestien artean Goizian Argi Eztian, Ttanttangorria eta Sagarraren abestiak entzuteko aukera izango dute entzuleek, eta ha-

banera eta izpiritual bana ere bai. Patxi Azkarateren zuzendaritzapean 40 bat lagun arituko dira goizeko 11:30etatik aurrera herriko parrokian.



Herriko abesbatza iazko emanaldi batean.



Herriko pilotariei omenaldia

Joan zen zapatuan egin ziren omenaldia Mexikon egon diren Haritz Berraondo eta Iker Muruamendiaren pilotariei Olalde Pilota Elkarteak. Hasteko, Josu Agirre-Xabier Biteri antzuolarrek Eneko Loiola-Arkaitz Bermer elgoibartarren aurka aritu ziren. Garaipena antzuolarrena izan zen, 18 eta 6. Bigarren partidua, Haritz Berraondo-Unai Idiakez eta Iker Muruamendiaren Urretabizkaia II.a. 22 eta 16 amaitu zuten, Muruamendiaren eta Urretabizkaia II.aren alde.

Partiduetan jasotako dirua Erdialdeko Amerikan Micht hurakanak eragin dako kaltetuei bidaltzea erabaki du Olalde Pilota Elkarteak. Guztira 114.000 PTA jaso ziren eta diru-laguntza Nazioarteko Caritas erakundearen bitartez bideratuko da. Olalde Pilota Elkarteak 16.000 PTA jarri zituen.

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Patxi Olabarriaren askatasunaren alde

Kontzentrazio isila egingo da herriko plazan

Patxi Olabarria preso antzuolarrak joan zen abuztuan bete zituen kartzela zigorraren hiru laurdenak. Hori dela eta, kartzelatik kanpo egon beharko litzateke. Gauzak horrela Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako Plataformak deituta kontzentrazio isila egingo da herriko plazan.

zioarekin bat egin dezan eskatu dute azaroaren 12ko Udal Batzarrean Korporazioak baietza eman zion eskaera honi.

Udalak onartutakoa

Jadanik ikusiko zenuten kalean Patxi Olabarriak kartzelatik kanpo eraman beharko lukeen egun kopurua jartzen


duen argazkia. Herriko Plataformak ekimen honekin hilabete darama eta asteoro egun kopurua aldatzeaz arduratzen dira. Bestalde, azaroaren 12ko Udal Batzarrean onartu ziren eskaera zehatzak hauek dira: batetik, Patxi Olabarriaren askatasuna eskatzea Espainiako Espetxe Zaintzarako erakundeetan. Bigarrenik, Patxiaren egoera salatzea Eusko Jaurlaritzan zein Madrilgo Gobernu Zentralaren aurrean. Eta hirugarrenik herriko Plataformak Patxi Olabarria askatzearen alde antolatzen dituen ekintzetan Udal Batzar bezala parte hartzea, eta antolatzen diren ekintza horietan herritarrei parte hartzea gonbidatzea. Eskaera honen arabera, domekan, 18:45etan egingo den kontzentrazio isilera batuko da Udal Batzarra.

Espaniako Kartzela legearen arabera, edozein presok bere zigorraren 3/4ak bete ondoren hirugarren graduako preso izateko eskubidea dauka. Dena den, eta hainbat euskal presorekin gertatzen den bezala, Patxi oraindik barruan darrai. Alcalako kartzelan egon ondoren Navalcarnero dago gaur egun.

Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako Plataformak, Santa Zezilia eguna hautatu du berriz ere Patxiaren askatasuna eskatu eta bide batez Euskal Herritik kanpoko kartzelatan dauden beste hiru preso antzuolar (Pollero, Eltzikorta eta Karmen Irizar) Euskal Herrira ekartzea eskatzeko.

Kontzentrazio isila

Plataformako kideek kontzentrazio isila antolatu dute domekarako. "Egun horretan hainbat ekintza daudenez, egun aproposa iruditu zitzaigun gure eskaera eta protesta egiteko" adierazi digute Plataformako kideek. Hori dela eta, gaztainerre janaren aurretik, arratsaldeko 18:45etan, protesta isila egingo dute herriko plazan. Udalean ere kontzentra-



Patxi, gaur eguakitza, orain dela 114 egun beharko litzateke kalean

Patxi Olabarriak, zigorraren hiru laurdenak bete zituen joan zen abuztuan

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

Arik

Euskal sukaldaritza

Eguneko menua

JATETXEA

Kalebarren 7. ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17 ANTZUOLA

Haurrak botoa ematera

Ikastetxeetako haurrek bozketa eguna izango dute bihar, zapatua

Giza eskubideen deklarazio unibertsalaren 50. urteurrenean, UNICEFek "Haurren ahotsa" izenburuko kanpainari ekin dio Euskal Autonomi Elkartearen. Hamar urte igaro dira haurren eskubideen aldeko hitzarmena sinatu zenetik eta eskubideak ezagutzera ematea da kanpainaren helburua. Bihar, zapatua, 8-11 urte bitarteko herriko ikasleek bozketa eguna dute, eurentzat garrantzitsuena den eskubidea aukeratzeko.



Haurren ahotsa" kanpaina, aurretik, Hegoamerikan egin izan da, Ekuadorren (1990ean), Kolonbian (96an) eta Mexikon (97an) hain zuzen ere. Euskal Herriko UNICEF Batzordeak, han jasotako erantzuna ikusita, hemen kanpaina martxan jartzeari ekin zion urte hasieran. Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du UNICEFek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 553 ikastetxetan kanpainaren inguruko eskola materiala banatu da. Bergaran Aranzadi Ikastolak, Mariaren Lagundia Ikastolak eta San Martin Agirre ikastetxeak hartuko dute parte kanpainan. Kanpainaren helburu nagusia 1988ko azaroaren 20an onartutako haurren eskubideen aldeko nazioarteko hitzarmena ezagutzera ematea litzateke. Hitzarmenean haurren hamabi eskubide nagusienak jaso ziren: nortasuna, familia, hezkuntza, jolasa, berdintasuna, babesa, partehartzea, ongizatea, bakea, haurren premiei lehentasuna ematea eta, azkenik, elkartasuna. Kanpainarekin bat egitea onartu duten ikastetxeetako ikasleek eskubide horien inguruko materiala landu dute egunotan. Aipatutako materiala egiteko soziologoek, lehen hezkuntzako profesionalen edota komunikazio sozialean lanean ari diren teknikariak elkarrekin lanean izan dira.

tu genuen, azken batean adin horretakoak rezeptiboagoak direlako honelako mezuak jasotzeko". Kanpainaren ekitaldi garrantzitsuenetakoa haurrei zuzendutako bozketa izango da. Bihar, zapatua, Bergarako ikastetxeko haurrek euren botoa emateko aukera izango dute Udaletxean, 11:00etatik 18:00etara. Bertan, ikasleek, hamabi eskubide horietatik eurentzat garrantzitsuena dena izendatuko dute. Euskal Autonomi Elkartearen 68.000 ikasle daude deituta biharko bozketarako. Aitziber Azkondok azpimarratzen duen moduan, "orain arte behintzat Hirugarren Munduko haurrek edo behar oso larriak dituztenak izan ditu kontuan UNICEFek, batik bat; gainontzekoei arreta berezia eskaini gabe. Orain, berriz, hemengoan iritziak edo kezkek zeintzuk

diren jakin nahi dugu eta hain zuzen hori da biharko hauteskundearen helburua. Umeengan sortzen den lehendabiziko partehartze gune demokratikoa da eta hori oso inportantetzat jotzen dugu. Haurrek herritar gisa dituzten eskubideak gauzatu eta beren betebeharrak modu kontziente eta informatuan bete ditzaten lortu nahi da bozketarekin. Bestalde, ikastetxeetan baloreetan oinarritutako heziketa prozesua zabaldu da, tolerantziari lehentasuna eman nahi zaiolarik".

Hauteskundeetako emaitzak jasota gero, haurrek helduei zuzendutako proposamen zehatzekin manifestu bat landuko dute, haurren artean eta gizartean ere ezagutzera emango dutelarik. Urtarrilaren bukaeran haurren ordezkaritza bat Eusko Legebiltzarrean izango

UNICEFek 8-11 urteko ikasleei zuzendutako bozketa eguna deitu du biharko.



Bozketa eguna

"Haurren ahotsa" kanpaina 8-11 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Aitziber Azkondo UNICEFeko komunikazio departamentuan ari da lanean joan zen apiriletik. Berak azaldu digunez, "ezinezkoa zen ikasle guztiengana heltzea eta 8-11 urte bitartekoekin lana egitea errezagoa gertatuko zela pentsa-

ETA ZUK, ZEIN ESKUBIDE USTE DUZU DELA INPORTANTEENA?



Igor Bernier

Familia, oso inportantea delako, garrantzi handia ematen diot familia batura egoteari. Beste eskubideak ere inportanteak dira baina nik familiarren eskubideari emango diot botoa.



Aitor Ramirez

Bakea, gure bizitzan izugarrizko garrantzia duelako. Mundu osoan beharrezkoa da. Bakea heltzeko guztion kolaborazioa ezinbestekoa da, elkarren artean laguntzea.



Naiara De Marcos

Bakea. Munduan jende pilo dago bakea behar duena. Tebistan ikusten da bakerik ez dagoela eta pena handia ematen dit. Elkarri hobeto ulertzen hasi gaitezke.



Argiñe Varela

Nik ere bakeari emango diot nire botoa, jende askok horren beharra duelako. Beste eskubideak ere inportanteak dira. Elkarri laguntzen badiogu bakea helduko dela uste dut.



Yiria Remesal

Babesa defenditzea beharrezkoa ikusten dut, nazio batzuetan haurrek tratu txarrak jasotzen dituztelako. Eta hori ez dago ondo. Haurrei babesa eskaini behar zaie lehenbizi.



Borja Gonzalez

Berdintasunaren aldeko botoa emango dut nik. Arraza batetako ala bestekoa izan edo ez, hori ez da inportanteena. Denok berdinak garenez elkarrekin egon behar dugu.



Cristina Blanco

Nik ere berdintasuna uste dut dela eskubiderik inportanteena. Niretako denok berdinak gara. Gurekin klasean Kuba, Ginea edo Portugalekoak daude eta guztiok berdinak gara.



Jon Olivares

Osasuna. Herrialde batzuetan ez dute medikuarengana joateko aukerarik eta hori oso gogorra da. Denok eskubide hori izan beharko genuke, guztion osasuna zaindu beharra dago.



Iulen Iñurrieta

"Haurrak aurretik", gure iritzia kontutan izateko. Batzuetan gurasoekin Sorraluzera joan behar izaten dut eta igual Bergaran geratzeari nahiago dut. Gure erabakiak errespetatzeko.



Nerea Urzelai

Babesa. Bergaran "zoro" asko dago eta batzuetan beldurrez ibiltzen gara. Nire lagun batek beltz bat ekarri zuen eta euren herrialdean berba egiten badute eskolan jo egiten dituzte.



Mireia Amasorrain

Bakea. Mundu osoan gerrateak daude eta gerrak kendu egin behar dira; janaria edota dirua bidali dezakegu. Gure gerrateak urez betetako globoekin egiten ditugu.



Iñhntza Orbegozo

Jende asko dago gerran eta bakearen aldeko botoa emango dut, denak lagunak izateko. Gu ere batzuetan haserretzen gara baina gero lagun egiten gara berriz.

da, Lehendakariari ere "Haurren ahotsa" kanpainaren berri emateko. Aitziber Azkondoren hitzetan, "orokorrean munduan ez dira errespetatzen orain 10 urte sinatutako hitzarmenean jasotako eskubideak. Somalia eta Estatu Batuetan kenduta, munduko herrialde guztiek berretsi zuten akordio hura baina telebista ikusi besterik ez dago ohartzeko leku askotan eskubide horiek ez dira kontutan hartzen. Hitzarmena berretsi zuten herrialdeak legezko bete beharra daukate baina argi dago ez dela errespetatzen, oraindik ere ez da hitzarmena ondo ezagutzen eta beraz ez da horren kontrola egiten. Arazo honen inguruan dagoen sentsibilitate faltanabarria da".

Haurren eskubideen aldeko nazioarteko hitzarmena ezagutzera ematea da "Haurren ahotsa" kanpainaren helburu nagusia. Eskubide horien inguruko bozketa izango da bihar

Ikasleak gustora

Bergarako ikastetxeek begi onekin ikusi dute kanpaina hau martxan jarritzea. Jesus Alvarez San Martin Agirre ikastetxeko irakaslearen hitzetan, "ikasleak ez daude oso ohituta eskubide horien inguruko notiziak jasotzera eta planteatzen dizkiegun eskubideak (berdintasunarena esaterako) gauza lojikoetat hartzen dituzte. Arans-Gitil mutiko gor bat etortzen da klase batzuetara eta gure ikasleek normal ikusten dute hori, beraiekin integratzea alegia. Haur beltzak edota txinatarrak izan dituzte alboan eta ezin dute ulertu beste herrialde batzutan arraza ezberdinekin arazoak egon daitezkeela. Eskubide hauei ez diete garrantzirik ematen gauza jakina bezala ikusten dutelako. Ezin dute ulertu haur bati mina egindakiokenik, nolabait haur pribilegiatuak".

direla ez dakitelako. Bestalde botazioaren kontuarekin ilusionatuta daude baina Udaletxean izateak errespeto pitin bat ematen die. Baina botoa ematea zer den ezagutzeko joateko esaten diet”.

Aranzadi Ikastolako 8-11 urteko ikasleek, Gabonak bitartean asteko ordu bat emango dute gai honen inguruan. Azken hiru asteotan eskubideak aztertzen izan dira eta orain UNICEFek banatutako lan koadernoak lantzeari ekingo diote. Blanca Narbaiza irakasleak adierazi digunez, “beste arlo batzutatik kendu behar izan dugu denbora, gaiari duen garrantzia eman nahi izan diogulako. Egia esan, azaltzeko ez da batere erreza izan; haurrek beraien eskubideak dituztela esaten genienean harrিতa geratzen ziren. Dena den, uste dut kanpaina hau baliogarria dela eskubideak ezagutzera emateko eta haurrek konturatzeko eskubide hauek beharrezkoak direla mundu osoan ez direlako errespetatzen. Orain botazioarekin piskat kezkatuta daude. Botoa emateko gogoia daukate baina bestalde benetan kaso egingo dieten zalantzan jartzen dute”.



Herriko ikastetxeetako ikasle gaztetxoek haurren eskubideen inguruko lanak egin dituzte egunotan.

Mariaren Lagundiko Manoli Urraren ustetan, “gure ikasleekin lantzeko gai aproposa zela iruditu zitzaigun, ikasleek euren eskubideetaz jabetzeko eta eskubide horiek beste zenbaiti ere badagozkiela ikus dezaten. Bi aspektu azpimarratu nahi izan ditugu; batetik batzuen eta besteen eskubideak sarritan gatazka egoera emanez txoke egiten dutela eta elkarrenganako errespetua dela hori konpontzeko bide bakarra eta, bestetik, munduko hainbat lekuta-

ko umeek denetik falta dutelako eskubideen aldarrikapenak euren bizitzarekin zerikusi gutxi duela uste izatea. Horregatik, Ertamerikako sarraskiaren ondoren FISC-aren (Mariaren Lagundia-aren ONGa) bidez antolatu dugun solidaritate kanpaina UNICEFek antolatutakoarekin uztartu nahi izan dugu. Balia izan du ikasleak bizi diren lekuan bizi izateaz duten suerteaz jabetzeko eta euren suertea ez daukaten umeenganako solidaritatea pizteko”. B



SANTA LUZIA BEZPERAN, abenduak 12,
zatoz Tartufo jatetxera!

Hasteko. AFARI ZORAGARRIA

Eta ondoren, **12:30**etatik aurrera eta goizaldeko ordu txikiak arte,
DISKO-MUSIKA

Gainera, **02:00**etan, **GIZONEZKOEN STRIP-TEASE SAIOA**

HARTU LEKUA LEHENBAILEHEN!

San Juan auzoa,
Elgetako bidea,
Bergara.
Tf. 943 76 35 51.





Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Zapatuan kanpoan

- 09:30: Bayer-Agirrebeña
 10:30: Mo(ko)lotov-Jakina PT
 11:30: Ezinleike-Xurruapak
 12:30: Urrutxurtu-Komando Piperrak
 16:00: Amozkibar-Arbe Kiroalak
 17:00: Moskis-Patatus
 18:00: Azpeitxi-A Ze Flaxa Etxagi
 19:00: Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam

Mo(ko)lotov
Ezinleike
Urrutxurtu
Xurruapak
Moskis
Azpeitxi
Shaktale
A Ze Flaxa

Domekan barruan

- 16:00: Matxakategi-Sirimiri Eri
 17:00: Etengabe-FAC
 18:00: Ion Autoak-Usoa
 19:00: Artusamak-Irubide Jatetxea
 20:00: La Juve-SLP

Etengabe
Ion Autoak
Artusamak
La Juve
Irubide

Domekan kanpoan

- 09:30: Ari Ari-Amilotx
 10:30: Errotagain-Pagomendi
 11:30: Mongatxurak-Jauja OH Zerezos
 12:30: Ortz-Bar Canalejas
 16:00: Ufala-Tom Cat Argandolas
 17:00: Guadalest-Pinturas Bergara
 18:00: Agiñaspi-Buya
 19:00: HHH-Uve Bikoitza

Errotagain
Mongatx.
Ortzi
OH Zerezos
Guadalest
Agiñaspi
HHH
Buya

argi!

Zubixaurre Punk txapelketatik kanpo

Zubixaurre Punk taldeak, Labegaraietako txapelketa laga egin behar izan du jokatzeko jenderik ez zuelako. Beraz, C multzoa hamaika taldek osatuko dute hemendik aurrera.

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Pagomendi	15	7
2. A Ze Flaxa Etxagi	14	6
3. Errotagain	13	6
4. Azpeitxi Jatetxea	10	6
5. Bar Canalejas	9	6
6. Bildurbarek Opel/Lam	7	5
7. Jauja OH Zerezos	6	5
8. Ortz	4	6
9. Mongatxurak	4	6
10. Shaktale	3	6

A multzoa

	P	J
1. FAC	18	7
2. Artusamak	16	6
3. Txipiron	15	7
4. Urrutxurtu	12	6
5. Komando Piperrak	10	7
6. Usoa	9	6
7. Etengabe	7	6
8. La Juve	5	5
9. Ion Autoak	5	7
10. Irubide Jatetxea	3	6
11. SLP	-3	6

B multzoa

	P	J
1. Tom Cat Argandolas	19	7
2. Guadalest	19	7
3. Uve Bikoitza	15	7
4. Arbe Kiroalak	13	7
5. HHH	13	7
6. Moskis	12	7
7. Ufala	9	7
8. Agiñaspi	7	7
9. Pinturas Bergara	5	6
10. Buya	4	7
11. Amozkibar	3	7
12. Patatus	1	7

C multzoa

	P	J
1. Xurruapak	21	7
2. Ezinleike	16	6
3. Bayer	15	6
4. Sirimiri Eri	13	7
5. Jakina Patxaran Team	13	7
6. Agirrebeña Jatetxea	13	7
7. Mo(ko)lotov	6	6
8. Ari Ari	6	7
9. Amilotx	6	7
10. Matxakategi	4	7
11. Iganekoak	1	6

jokoz kanpo



**ANTONIO
 TABUADA**
Mo(ko)lotov

- G.** Nolako emaitzak lortu dituzue?
E. Lehendabiziko urtea da txapelketan eta C multzoko erdi aldean gaude. Bi partidu irabazi ditugu.
G. Nolako mailarekin aurkitu zarete C multzotan?
E. Guztiok antzera samar gabiltza. Bi talde dira maila polita erakutsi dutenak.
G. Zein postutan jokatzeko duzu?
E. Atzean. Beti jokatu izan dut toki horretan eta gustokoa dut.
G. Zer dela eta animatu zarete txapelketan jokatzera?
E. Hainbat txapelketatan ibili gara. Antzuolan, esate baterako, 24 orduko txapelketa bat antolatzen da urtero eta beti hartzen dugu parte oso gustokoa baitugu futbitoan aritzea. Jende asko animatzen da jokatzera txapelketa horretan.
G. Zer dela eta Mo(ko)lotov izena?
E. Zerbait ipini beharra zegoen eta..., ez dauka zentzu berezirik.
G. Txapelketako jokalarari bat.
E. Josu Larrea.
G. Derbi egunean izan zinen Anoetan?
E. Bai. Realzalea naiz. Partiduan ezinhobeto pasatu genuen.
G. Realeko jokalarari bat?
E. Sá Pinto.

gora eta behera



Lehen mailakoak primeran
 Lehen mailan erakusten ari diren maila aipatu behar dugu oraingoan. Talde gehienak seriotasun eta gogo handiz jokatzeko ari dira eta noizbehinka ezulertzeak sortzen badira ere, jokalariek ez dute partiduetan huts egiten eta futbitoan jokatzeko gogoia erakusten dute.



Behar bezalako portaera eske
 Antolaketa Batzordearen ustetan, talde batzuetako jokalariek ez omen dute joko garbia eta behar bezalako jokaera erakusten. Batzordearen iritziz, horrela lesio eta harreman ez atseginak sortzen dira eta ahal den neurrian hori guztia ekiditea eskatzen du, jokoa atseginagoa eta adiskidekiagoa izan dadin.

emaitzak

Usoa-Txipiron	4-6
Amilotx-Iganekoak	4-3
Ortzi-Errotagain	2-5
Pagomendi-Azpeitxi Jatetxea	2-2
Jauja OH Zerezos-Bildurbarek Opel/Lam	3-10
A Ze Flaxa Etxagi-Shaktale	5-2
Bar Canalejas-Mongatxurak	3-1
Arbe Kiroalak-Guadalest	3-7
Komando Piperrak-Etengabe	1-2
Pinturas Bergara-Ufala	3-9
Sirimiri Eri-Bayer	4-6
Xurruapak-Mo(ko)lotov	1-0
Zubixaurre Punk-Ezinleike	0-3



Liderraren kontrako garaipena

Jende asko bildu zen joan zen asteburuan jubenilek Eibarren kontrako partiduan. Giroak ere ez zuen huts egin. Zelaia eta Jauregiren mutilak erakusten ari diren mailaren ondorioz, gero eta jende gehiago interesatzen ari da eta horrek giroa ere sortzen du. Partidu bikaina izan zen. Inaki Mujikak markagailua lehen zatian estreinatu zuen lehendabiziko gola eginez.

Atsedenaldira berdinke-tarekin joan arren, bigarren zatian Inazio Dovaok egin-dako golari ezker aurre hartu zioten liderrari. Eibar talde gogorra eta zaila izan izan da beti, teknika oneko jokalariz osatutako taldea baita. Oraingoan, badago gauzak oso zail ipiniko dion talde bat. Bergara.



Azken segunduko berdinketa

Iraundi eskubaloit taldeak, liderrarekin, Urola taldearekin partidua berdindu egin zuen, irabazteko aukera eskutik ihes egin zitzaio-larik. Hasierako minutuetan 5-9 galtzen joan ziren bergararrak. Partidua parekatzea lortu zuten baina abantaila hartzerako garaian ez zuten aukerak aprobetxatzen jakin. Aldeko penaltia jaurtitzeko garaian ere kale egin zuten.

Bigarren zatian berriz, ozta ozta ibili arren, gol abantaila murriztea lortu zuten, Bergarako atezainek egindako lan politari esker. Bi taldeak parekatuta iritsi ziren azken segunduetaraino. 10 segundu faltan, Lijoren mutilek partidua irabazteko aukera galdu zuten eraso batean.



Neska jubenil indartsuak

Saskibaloit taldeko jubenil neskek sekulako denboraldia egiten ari dira. Zapatuan, Intxaurrendoko Inter taldearen kontra 44-35 irabazi zuten. Eguakitzean ikasleen eguna ospatu bazen ere, Bergarako neskek ez zuten kale egin eta hasierako zatia petral samar hasi arren, 12. minutua heldu eta 13 puntutan berdintzea lortu zuten.

Bigarren zatia ere ez zen gutxiagorako izan. 15 puntuko abantaila lortu zuten. Maite Usabiaga izan zen puntu gehien egitea lortu zuena, 20 puntu hain zuen. Une honetan jubenil mailako neskek sailkapeneko bigarren lekuan daude. Domekan, Beasainekoek kontraneurtuko dituzte indarrak.

MIKEL ARAKISTAIN / Karateka

"Selekzioak sakrifizioa eskatzen du"

16 urte ditu eta duela 10 ha-si zen Bergarako Shotokan taldean. Une honetan, Gipuzkoako Shotokan selekzio kadete mailako partaide da eta bihar, zapatua, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioekin batera entrenamendu saioa izango du Bergaran.

G. Zer dela eta etorriko dira Shotokaneko selekzio guztiak Bergarara?

E. Euskadiko selekzioarako jende berria nahi dute eta Angel Laza selekzionatzaileak guztiei deialdia zabaldu digu bertan ari garenon maila ikusi eta aukeraketa bat egiteko. Entrenamendu saio berezia izango da. Bergara gune aproposa da nahiko ondo

komunikatuta baitago eta hori dela eta aukeratu da.

G. Nolatan selekzioan?

E. Froga batzuk egiteko aukera izan nuen eta interesgarria iruditu zitzaidan. Horrela aukeratu ninduten. Dagoeneko bigarren urtea da. Ni kadete mailan na- goen bezala, Pablo Pera bergararra, senior mailako selekzioan dago.


G. Duela gutxi Gipuzkoako txapelketan irabazle geratu zinen zure taldekideekin batera.

E. Bai. Nahiko txapelketa gogorra izan zen baina azkenean bizkaiatarrak eta arabarrak garaitu genituen.

G. Zein txapelketa irabaztea gustatuko litzaizuke?

E. Ez dakit. Espainiakoa behar bada. Orain Gipuzkoako txapelketarako prestatzen nabil.

Bakarkako txapelketa izango da. Emaizta onak lortuz gero Euskadikoan izango naiz. Oraingoan nire selekzio kideekin borrokatzea iritsi naiteke eta gogorra izango da. Selekzioan izateak sakrifizio handian eskatzen du.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Hondarribia

Preferentea

Zapatua. 15:30. Agorrosin

Bergara-Urki

Neskak

Zapatua. 16:15. Ipintza

Bergara-Eibar

Infantil maila

Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Almen

Bigarren jubenil maila

Domeka. 11.30. Ipintza

PILOTA

BAQUE TXAPELKETA

Zonako finalak

Domingez-Jauregi

Kadete maila

Etxabe-Arrieta

Jubenil maila

Martitzena. 19:00. Pilotalekua

SASKIBALOIA

Bergara-Arrasate

Kadete mutilak

Domeka 10:30. M. Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Arrate

Jubenil mutilak

Domekan. 10:00. Kiroldegia

PALA TXAPELKETA

Osintxun. Zapatuan

Final erdiak

16:00 : Urigoitia eta Mancebo

Alberdi eta Agirrebeña

17:00 : Rico anaiak

Etxaniz eta Irureta

ARETO FUTBOLA

Bergarako Lagunak-

Lauburu

Jubenil maila

Domeka. 11:30

Labegaraieta

Bergarako Lagunak-

Hegoalde Benta Aldea A

Domeka. 12:30

Labegaraieta

Igeriketa Elkartek eman dio hasiera denboraldiari

Waterpolo taldea eta 20 igerilari plantilan

Bergarako Igeri Elkartek dagoeneko denboraldia martxan jarri du. Joan zen urtean bere 25. urteurrena ospatu zuen eta aurten ere bertako igerilari eta waterpolo taldeak hainbat txapelketa eta ekitalditan parte hartzeko bidean daude.

Igeri Elkartea une honetan 20 igerilari eta waterpolo talde batekin ari da lanean. Zuzendaritza batzordea osatzen duten Andres Alberdi (presidentea), Jesus Jauregi, Jesus Mari Lazpiur, Cecilio Maiztegi, Jesus Fernandez, Jesus Balzategi eta Simon Osinalde, astean zehar eta asteburuetan izaten diren irteera, administrazio lan eta ekitaldiak antolatzeaz arduratzen dira. Teknika eta entrenamendu lanetan Leire Zeziaga dabil, dagoeneko bederatzi urtez. Gazteak kanpoko txapelketetara hurbiltzerako garaian, gurasoen lagutza izaten dute.

Denboraldiko egutegia

Entrenamenduak irailean hasten dira. Igerian hasi baino lehen, fisikoa lantzen dute korrika eta gimnasioan egiten dituzten ariketen bitartez. Urrian, igeriketa saioak izaten dira nagusi. Urteko egitaraua, Azpeitia, Eibar, Oñati, Elgoibar, Legazpi eta Arrasateko herrien artean izaten den ligarekin eta, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketekin osatzen da. Horretaz gain, hainbat tra-



1998/99 denboraldian arituko diren igerilariak.

besia eta txapelketa puntuetan ere izaten dira.

Eskola Kirolaren eragina

Igeri Elkartek oraingok baino garai hobekoak ezagutu ditu. Batzordeko kideek azaldu digutenez, "elkartea krisi egoeran dagoela esan daiteke. Beti izan dira gora-beherak baina oraingoan larrituta gaude. Gure ustez, eskola kirolak kalte handia egin digu. Haurrak igeriketa aukeratzen dute baina honekin batera beste bi kirol aukeratzera behartuta daude. Ondorioz, ez da behar bezalako prestaketa egiten. Igeriketak dedikazio osoa behar du eta eskola kirolak ez du horrelakorik bideratzen. Igeriketa gazte gaztetatik lantzen hasi behar da eta gaur egun gazte txoak hainbat kirol proba-

tzen ari dira. Horrela, igerian hasteko erabakia hartzen dutenerako ez dute adin aproposik izaten".

Igeriketa, bakarrean egin beharreko kirola da eta gaur egun taldeka egiten diren kirol ugari izatean, are eta zailagoa izaten da horrelako kirol bat aukeratzea. "Bakarka entrenatu behar da eta askotan gogorra izaten da baina etorkizunari begira, pertsona garatzeko

"Igerian hasteko erabakia hartzen dutenerako ez dute adin aproposik izaten. Hori eskola kirolak eragiten du"

eta sendotzeko balio du". Une honetan elkartea bere kabuz ari da lanean. "Udaletik jasotzen dugunarekin eta, batez ere, gurasoek jartzen duten laguntzarekin, igerilariak eta waterpolo taldea aurrera ateratzen saiatuko gara berri ere".

Txapelketa garrantzitsuenak

Igerilari ugari pasa dira elkartetik. Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetaz gain, Espainia mailan ibili diren bergararrak ere ugari izan dira. Azken aldian, Eneritz Muguruza izan da nabarmendu dena eta Espainia mailan aritzeko aukera izan duena. Waterpolo taldea Gipuzkoako ligan, kopan eta 2. mailako euskal ligan jarduteko asmotan dabil. B

Kirolari buruzko VI. Topaketak jende gutxi bildu zuen

Eguakitzean, Migel Al-tuna institutuan, futbolar gainontzeko kiroletan duen eragina izan zen hizpide bertan izan ziren hizlarien artean.

Udaleko Kirol teknika-riak, Iñaki Ugarteburuk, adierazi digunez, "gai asko tratatu genituen baina batez ere, futbolararen eraginez, hainbat kirolek desagertze-ko duten arriskua. Horretarako, futbolar begira egon behar badugu ere, gainontzeko ekitaldi eta partiduak, programaketa hitz batean, koordinatuta egin behar da. Publizitate berezia eman behar zaio batez ere kirol berrien inguruko programaketa eta administrazio al-



Mahainguruan hizlari aritu zirenak.

detik ere zerbait egin beharra dago".

Antolatzaileak argitzera eman dutenez, jende gutxi hurbildu zen bertara: Bergarako jende gutxi eta kirol el-

karteetako ordezkari gutxi izan ziren. "Kirol elkarteetako jendea da batez ere interesatuta egon beharko litza-tekeena eta oso lagun gutxi hurbildu zen". B



BKEren Pilota Saila oso-osoan izan zen Ikerri egindako omenaldian.

Iker Muruamendiarazi omenaldia

Eguakitzean, Iker Muruamendiarazek, BKEko Pilota sailak eta Udalak eskainitako omenaldia jaso zuen pilotalekuan. Mexikon lortutako garaipena eta egindako denboraldi bikaina aitortu nahi izan zuten bertara inguratu ziren jarraitzaile, pilota saileko ordezkari, pilotari eta Bergarako Udalak, alkatea ordezkari zela. Horrela, Ikerrek domina eta bere izenean egindako bi oroigarri jaso zituen. B

ESKOLA KIROLA Karteldegia

SASKIBALOA

Benjamin maila:

10:00: Aranzadi 3-Antzuola 1

10:00: Aranzadi 6-Aranzadi 4

11:00: M Lagundia A-Antzuola A

11:00: M Lagundia D-Antzuola B

12:00: M Lagundia B-San Martin A

12:00: M Lagundia E-San Martin B

Infantil maila:

11:00: Aranzadi- Rompehuesos

Denak M Lagundian

FUTBOLA

Infantil mailako mutilak:

09:45: M.Lagundia-S. Fco. Xabier

11:00: Aranzadi-S. Fco. Xabier B

12:15: Ipintza DBH-Institutua

Infantil mailako neskak:

08:45: Aranzadi-S. Fco. Xabier

Denak Ipintzan

ESKUBALOA

Infantil mailako neskak:

10:00: Bergara-Itzio

Infantil mailako mutilak:

11:00: Aranzadi- Torrebaso

Denak Labegaraietan

PILOTA

Alebin mailako mutilak:

09:00: Aranzadi 8, M Lagundia A, Aranzadi 11

10:00: Aranzadi 9, M Lagundia B, Aranzadi 12

11:00: Aranzadi 10, San Martin, Aranzadi 13

Alebin mailako neskak:

12:00: Aranzadi 14, Aranzadi 15

12:45: San Martin, M Lagundia

Denak Zabalotegi Pilotalekuan

Gimnasiako Euskadiko klubuen arteko txapelketa

Bihar, zapatua, 17:15etan, Ariznoa El-kartea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat klubuen aurka aritu beharko da Labegaraietako kiroldegian. Guztira zortzi elkarte izango dira bosgarrenfaseari dago-kion norgehiagoka honetan.

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San Lorentzon. 943 76 21 63.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Aranerreka. 943 76 52 17.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Aranerreka. 910 091 861.

Apartamentua salgai Espoioan. 943 76 03 43.

Erosi

Pisua erosiko genuke Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Bi neska pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun. 943 76 56 03.

Deba Garaian baserria erosi edo errentan hartuko genuke. 943 71 47 56 (Antonio, gauez).

Pisua hartuko genuke alokairuan. 945 46 58 36.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebukeratan), 943 76 50 46.

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Edozein lanetarako neska eskaintzen da. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gaisoak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 81.

Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko.

2. GARAJEAK

Saldu

Garaiea salgai Boni Laskurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 24 57.

Garaiea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Garaiea salgai Kruz Gallastegin. 943 76 27 61.

Garaiea bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Garaiea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Errentan emateko

Garaiea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garaiea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garaiea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala komertziala herri erdian. 100-300 m2 bitar-

tekoa. 943 79 11 71.

Erosi

40 m² inguruko biltegi edo baxua behar dugu. Deitu 945 14 17 84 telefonora (17:30-20).

Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 /76 37 80 (gauez).

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Taberna batean
ZERBITZARIA
behar da
Tf. 943 76 52 30

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

Deco-Textil
ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Deitu 943 76 47 76 telefonora.

Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 01 11 (gauzez).

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 70 33 (gauzez).

Neska bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943 76 50 02.

Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 01 11.

Umea zaindu eta etxeko lanetarako pertsona bat behar da Antzuolan. 943 76 65 00.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Majisteritza diploma-tuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu. 943 76 03 83 (Dani).

Lizentziatu batek italierra klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. 943 76 65 24.

Eskaerak

Italiarra klaseak jaso nahi nituzke. 943 76 64 14 (Eva).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia Climber 91 motorra salgai. 943 76 07 28 (Ion).

Rover 216 (NA-W).

943 72 63 47 (Angel).

Alfa 33 1.7 i (SS-AK). Aire egok. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Volkswagen Caravelle furgoneta (VI-M) salgai. 943 79 97 35.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Hispaniel-breton txakurkumeak. 943 76 71 94 (Pablo).

8. DENETARIK

Saldu

Holton tronpeta salgai, egoera onean (75.000 pezeta). 943 76 48 23.

Labadora, hezetasuna kentzeko tresna eta ontzigarbigailua salgai. 943 76 00 85.

Errepideko Zeus bizikleta. 58 neurrikoa, 25.000 pezeta. 907 34 46 58.

Citroen AX kotxerako edurretarako kateak salgai. 943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Super Nintendoko jokuak eta mandoak salgai. 943 76 10 93.

Ume jaioberriarentzako kapota kotxea egoera onean salgai. 30.000 pezeta. 943 76 15 40.

Snowboard taula eta fijazioak salgai. 1,52 m. neurrikoak. 45.000 pezeta. 943 76 15 35.

Erosi

Teklazko akordeoia erosiko genuke. 943 76 12 49.

Galdu

Urrezko pultsera galdu dut. 943 76 44 60/76 02 24.

Aurkitu

Bolun eraztun bat topatu dut, Begoña izena eta 23-3-90 fetxarekin. 943 76 54 52 (Jone).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ILEAPAINZAILERA
Bilbo. 13580/5

JANGELAKO ARDURADUNA
markina. 13763/4

PIOI ESPEZIALISTA 2
Bilbo. 14025/4

SUKALDARI 2
Segovia. 14188/1

ZORROZTAILEA CNC
Durangaldea. 14310/1

TORNULARIA
Durangaldea. 14329/1

PIOIA
Berriz. 14372/2

CNC FRESATZAILEA
Basauri. 14374/1

GOZOGILEA
Tarragona. 14438/1

FABRIKAZIOKO ZUZENDARIAREN LAGUNTZAILEA
Bilbo. 14538/1

SOLDATZAILEA
Ibai ezkerrekoa. 14553/1

MANTENI-MENDURAKO ARDURADUNA
Bilbo. 14586/3

PRODUKZIOETAKO LANGILEA
Arratia. 14117/2

PRODUKZIO-BURUA
Arratia. 14115/2

KALITATE ARDURADUNA
Arratia. 14118/2

SUKALDARIA
Arratia. 14119/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

ITZIAR ALBISUA

oleo-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxa: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

Agirrebeña: zeramikazko altxorra fatxadan


Etxeari buruzko liburu-monografikoa argitaratuko du Bergarako Udalak

Agirrebeña etxeko (Batzokiko etxea) fatxadan dauden zeramikazko plakei buruzko liburua argitaratuko du Udalak datorren udaberrian. Zeramikaren historian aditua den Antonio Perla historiagile madrildarrak idatzi du liburu-monografikoa eta dagoeneko inprentan dago.

“Historias de una estufa. Las placas cerámicas del XVI en la casa Agirrebeña de Bergara” da liburuaren izenburua. 251 orrialde izango ditu eta jatorrizko bertsioa gazteleraz idatzita dagoenez horrela argitaratuko da. Halere, bi eranskin izango ditu, euskarazko eta ingelesko itzulpenekin. Euskarazko itzulpena Arantzazu Loidi Udaleko Euskara zerbitzuko langileak egin du; ingelesezkoa, ostera, Jenny Frances Dodman-ek, historia eta arteko hainbat liburu eta katalogo itzuli dituenak.

Liburua 92 imajinaz eta argazkiz jantzita joango da: 63 zuri-beltzean izango dira eta 29 koloretan. Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagak atera dituzte Agirrebeña etxe

ko plaken argazkiak. Hiru kapitulu eta epilogoia izango ditu liburuak. Lehenengoan, Behe Erdi Aro eta Berpizkundeko berogailu zeramikoaren berri ematen da, eta Bergarako plakak, Alemanian garai hartan egin eta gaur egun museoetan kontserbatzen diren hainbat estufarekin harremanetan jartzen dira. Bigarrenean, Bergarako plakak inspirazio edo iturburu ikonografikoa non duten aztertzen eta zehazten da eta plaka multzoak gordetzen duen mezu ikonografikoa interpretatzen du autoreak. Azkenik, hirugarren kapitulua, gaur egun Agirrebeña etxea deitzen diogunean garai batean bizi izan zen Azkarate familiari buruz-



Agirrebeña etxea.

netan jartzen dira. Bigarrenean, Bergarako plakak inspirazio edo iturburu ikonografikoa non duten aztertzen eta zehazten da eta plaka multzoak gordetzen duen mezu ikonografikoa interpretatzen du autoreak. Azkenik, hirugarren kapitulua, gaur egun Agirrebeña etxea deitzen diogunean garai batean bizi izan zen Azkarate familiari buruz-

koa da.

Hitzaurrea Fernando Checa Cremades-ek egingo du. Karlos V.a eta Felipe II.aren ikonografietan aditua da eta gaur egun El Prado museoko zuzendaria da.

Liburua Udalak argitaratuko du eta egitasmoaren aurrekontua 4 milioi pezeta ingurukoa da. Gipuzkoako Diputazioak milioi bat emango du. 1.500 ale argitaratuko dira.

Bakarra estatuan eta bakarrenetakoa European

Antonio Perlak orain dela bi urte ekin zion Agirrebeña etxe

ko fatxadako plaka zeramikoak aztertzen. Bi urte hauetan egindako ikerketen ondorio nagusiak honako hauek dira: Bergarako Agirrebeña jauregi

ko fatxada apaintzen dituen plaka zeramikoak, Nurenberg hirian XVI. mendearan lehen erdian egindako berogailu baten osagarriak dira. Bestalde, plaka hauek multzo homogeenoa osatzen dute eta hau ia osorik kontserbatzen da. Horretaz gain, plaka multzo honek esanahi eta mezu ikonologiko bat du eta mezua Karlos V.a enperadoreari buruzkoa da; enperadorea bera aurkitzen delarik irudikatuta Bergarako plaketan (ezkerreko argazkian ikus dezakezue). Azkenik, arte lan hau bakarra da estatuan eta arraroa European. Antonio Perlak egindako lan zehatzak eta arte lanak zeramologian duen garrantziak, gaiari buruzko liburu-monografikoa argitaratzera animatu du Udala. “Esan behar da horrelako kasurik ez dela ezagutzen estatu osoan eta, bestalde, balio artistiko handiko plaka zeramikoak direla. Liburuak Bergara nazioarte mailan, batez ere Alemanian, zabaltzeko balio izango digu; horregatik egin dugu ingelesezko eranskina” esan digu Xabier Aranburu Udal museo-ologoak. B



Agirrebeña etxe

kronika

erreseinak

Formato txikiaren handitasuna

Michel Ducau, Caroline Phillips eta Ander Lipus

Kultur Errotaren hegalek martxan jarri ziren joan zen domekan Pol-Polen, Ander Lipusen antzerkiarekin eta Michel Ducau eta Caroline Phillips-en musika emanaldiarekin.

Ander Lipusek "Ardoaz" izeneko antzerki saioa eskaini zuen, hiru ordu laurdeneko bakarriketa. Ikusleak aho zabalik laga zituen, performancean erakutsitako errealismoarengatik. Paneroren olerki bat abiapuntu hartu eta eskale baten gora-beherak kontatu zituen, diapositiben laguntzaz.

Ondoren, Michel Ducau (kitarra, txirula eta ahotsa) eta Caroline Phillips-en (teklatuak) txanda etorri zen. Iparaldeko bikoteak -Caroline jaiotzez Estatu Batuetakoa da-, Berako eta Donostiako bi musikoren laguntza izan zuen:

Mikel Artieda (bajoa) eta Luis Camino (pertsutsioa). Estraineko diskoko eta Durangoko azokarako kalean izango den bigarreneko kantuak eskaini zituzten. Horiez gain, Errobi garaiko beste bi: "Aitarik ez dut" eta "Zuretzat", hauek biak kontzertuko azken kantuak izan ziren.

Michel eta Caroline senar emazteak dira eta taula gainean elkarrekin primeran egokitzen direla erakutsi zuten domekan. Michel maila handiko musikoa da, kitarrarekin ez ezik, azkarra txirularekin eta saxoarekin ere, nahiz eta hau ez erabili domekako emanaldian. Errobi desegin zenetik hainbat musika esparrutan lan egin badu ere, Carolinerekin bikotea osatzen duenetik musika herrikoa landu du batez ere.

Domekan Pol-Poleleko aretoa bete

zutenek interes handiarekin jarraitu zuten emanaldia eta oso gustora geratu ziren; baita antolatzaileak, musikariak eta Ander Lipus bera ere. Gabonak bitartean Kultur Errotako beste bi emanaldi antolatuko dira Bergaran. Hurrengoan Jabier Muguruza etor daiteke. Egunak ez dira zehaztu. **B**



Ducau-k eta Phillips-ek saio ederra eskaini zuten domekan Pol-Polen.

AMODIOZKO GUTUNEN LIBURUA KALEAN. Joan zen egunean aurkeztu zen Kultur Etxean Jardun elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako orain arteko sei edizioetan saritutako gutunak biltzen dituen liburua. "Maitasunez... amodiozko gutunak 1993-1998, eta piro-poak" da liburuaren izena eta bertan, lehiaketan sarituak izan diren 21 gutunez gain, 150 piro-po eta maitasun deklarazio ere biltzen dira. 1.000 pezetaren truke eskura daiteke.

Bestalde, Amodiozko gutunen zazpigarren edizioa aurkeztu zen. Lehiaketan 1984an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte eta 140.000 pezeta banatuko dira saritan. Sari banaketa otsailaren 14ean, San Balentin egunean, egingo da.



Pablo Sastre
Gauzak apur bat konplikatuta dira
Narratiba

Hiru kontakizun luze aurkezten dizkigu autoreak ipuin-bilduma honetan. Hiru ahots, bakoitza bere istorioa kontatzen: "K.ren egunkaria", II. Mundu Gerra garaian Baiona ttipiko etxe batean gordetako familia judu baten kontuak; "Fuster-en testimonioa", ez nor den ez nondik datoren, inon ageri ez den emakume batek komisaldegian sortzen duen noraeza, eta "Gau bateko distira", urbanizazio bat egiteko etxea txikitu behar dioten familia batenak...

Estilo berezia landu du Sastrek: tonu lasai, natural bat bilatuz, giro bakoitzari ongien lotzen zaion moldean, ahoko eritmotik oso hurbil askotan.

- Elkarlanean. 148 orr. 1.450 PTA



Benito Lertxundi & Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Auhena sinfonikoa

Tolosaldeko Kilometroak 98 zela-eta, Benito Lertxundik eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak elkarrekin aurten apirilean Tolosan eskaintako emanaldiak jaso zuen arrakasta izan da disko honen hazia. Bertan, Benitoren betiko kantuak aurkituko dituzue, baina orkestrarekin joteko moldatuak: Udazken koloretan, Txcri tti-kia, Oi Zuberoka, Oi ama Euskal Herri, Bizkaia maite, Urrundik heldu naiz...

Euskadiko Orkestrak Benito Lertxundiren kantuak interpretatuz, mundu klasikoa eta herrikoa uztartu ditu, lehena herriarengana hurbilduz eta bigarrena maila gorenera altxatuz. Bestalde, sentimenduz beteriko ahots ezagun eta hurbila eskaintzen digu Lertxundik, jadanik klasikoak diren abesti hauentzat euskarri musikal klasiko bezain eterno bilatu duelarik.

- Elkarlanean. 2.300 PTA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Xehetasuna. 2. Fruitu mota. Nahastura trinko. 3. Hiri txiki. Gaueko argi. 4. Hegazti harrapakaria. Errepublikatuz, fruitu tropikala. 5. Zabaldur. Diruzko zigor. 6. Zaude. Gora. 7. Tona. Zamari mota. Sufrea. 8. Bi. Istu, listu. Portua. 9. Ilunabar. Sarrera. 10. Esnea biltzeko zurezko ontziak. Nor, pluralean.

Goitik behera

1. Arboladiak. 2. Ikusgarria. Garoa. 3. Norbaitek inor hartzea. Alderantziz, iridioa. 4. Pluralean, jendearengandik jasotako oniritzia. 5. Zein gauzari. Hodi. 6. Herri hizkeran, eta. Oxigenoa. Errepublikatuz, nahi. Atzikia. 7. Bokala. Trebeak. Potasioa. 8. Poztasun. Musika nota. Bokal errepublikatu. 9. Agerian utzita. 10. Neu. Euskaraz eta kitto!

Soluzioa

10. Neroni. Aek. 9. Erakustita. 7. A. Iaiok. K. 8. Poz. Si. Aa. 5. Zeini. Tutu. 6. Ta. O. Go. Sa. 3. Harrea. r. 4. Arrakastak. 1. Zuhaitziak. 2. Edera. Ira. Goitik behera. 9. Arrats. Ate. 10. Kalkiak. Ak. 7. T. Astoa. S. 8. Il. Tu. Kala. 5. Ireki. Isun. 6. Zera. Gotti. 3. Herri. Izar. 4. Arranoa. Ka. 1. Zehaztapen. 2. Udara. Ore. Ezker eskuma


bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Bergarako zein kaletatik aterata dago argazki hau?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak Antzuolako **Arin** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Alex Muelarentzat** izan da: Infernukua jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Alexi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zabala etxea** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



Kalebarren 7, ANTZUOLA
Tf. 943 78 71 12

Ileapaintzaile ofizioa betitik gustatu izan zaio eta, Donostiako Guallar akademian ikasketak egin ondoren, Kizkur ileapaindegia zabaldu zuen Celiak duela 11 urte. Bertan bere ahizpa Amaia eta Margarekin ari da lanean.

Celia Gomez



Lanerako beharrezko kalitatea?

Lana atsegin izatea.

Lanerako sasoirik onena?

Udaberritik aurrera.

Eta txarrena?

Azaroa beharbada.

Lana, goizez ala arratsalde?

Arratsaldez nahiago.

Emakumeak ala gizonetakoak etortzen dira gehiago?

Emakumeak.

Bezeroek gauzak argi izaten dituzte?

Ez, asko orientatzen ditugu.

Denbora gehien norbait orrazten, noiz?

Behin 9 ordu trenza afrikanoak egiten...

Ilea ondo edukitzeko gomendio bat?

Kalitatezko produktuak erabili eta puntak sarritan moztu.

Zuk zeuk zenbatero mozten duzu?

Segun..., gogoia daukadanean.

Zeinek mozten dizu?

Amaiak edo Margak.

Ile motza ala luzea?

Motza.

Kizkurra ala lisoa?

Lisoa nahiago.

Tintatzekotan, kolore bat?

Kobre-kolorekoa.

Zenbatero garbitzen duzu ilea?

Astean hiru bider.

Ondo orraztuta doan pertsona ezagun bat?

Meg Ryan aktorea.

Eta gaizki doan beste bat?

Anasagasti.

Ispilu aurrean denbora asko ematen duzu?

Egun guztian ispilu aurrean nago!

Eta ispiluak zer esaten dizu?

Nire burua ikusteaz aspertuta nago.

Atsedean egunean zer egiten duzu?

Deskantsatu.

Umore onekoa ala txarrekoa zara?

Oso umore onekoa.

Mania bat?

Ondo orraztuta joatea.

Afizio bat?

Irakurtzea, musika...

Gustoko idazle bat?

Stephen King.

Animalia bat?

Txakurra.

Baduzu txakurrik?

Momentuan ez...

Janari bat?

Denetik. Pasta asko gustatzen zait.

Loterian jokatzeko duzu?

Gabonetan bakarrik.

Umea, noizko?

Apirilerako. Oraindik ez dakit mutila ala neska izango den.

Cor Pa BAZARRA

%30 LIKIDAZIO OSOA!
 eko deskontua salgai guztietan
 negozioa ixtera goazelako

Jostailuak Lanparak Opariak

Barrenkalea 13, BERGARA



Lagun koadrila, 1957

Aste honetan orain dela 40 urte inguruko argazkia dakarkizuegu erreturatu zaharren sail honetara. Bertan agertzen direnak koadrilan ibiltzen ziren orduan eta norbaitek argazkia atera zien Plazatik Artekalerainoko eskilartan. Ez daukagu argazkiaren inguruko datu zehatzik baina baliteke Pazkuetan ateratakoa izatea. Esan bezala, jasotako informazioaren arabera argazkia 1957 urtekoa omen da. Ziur argazkian agertzen direnek gogoan izango dutela egun hura. Kontua da argazkilariak umo-

retsu harrapatu zituela, izan ere ezkerretatik zutik agertzen den Juan Garciak panpina bat dauka eskuan. Hara zeintzuk diren, ezkerretatik eskumara:

Zutik: Juan Garcia, Francisco Etxarri eta Eusebio Ormaetxe.

Jarrita: Jose Bereziartua, Satur Ormaetxe, Paulino Manso, Arturo Reglero eta Javier Ilharbe.

Argazkia: Maritxu Lizarrala

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituztu, zatoz!

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK


Tf. 943 71 24 25

ad LAGUN GARAJEA



HELBIDE BERRIA Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20

Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa



Nobedadeak beti izaten dira ongi etorriak, baina oraindik ere gehiago ATLASek adinako freskotasuna eta interesa dutenean. Arrasateko Zerkaosteta 15ean dagoen erakustokiaren 100 m²ak eskaintza zabal baten lekuko dira, giro moderno, dinamiko eta gaztearekin.

Izena: ATLAS
Irekitzea: 1997ko iraila
Helbidea: Zerkaosteta 15, Arrasate
Neurriak: 100m²ko erakustokia
Salgaiak: Sport jantziak, oinetakoak eta osagarriak
Estiloa: ATLAS, erropa eroso, fresko eta gaztearekin
Deskribapena: Garapen etengabearen dagoen enpresa, kalitatea/prezioa erlazio ezin hobea eskaintzen duten markekin
Beste saltoki batzuk: Okendo 4, Donostia



Zerkaosteta 15, ARRASATE. Telefonoa: 943 79 55 05

Zure lehen erosketan

kupoi hau aurkeztu eta **%15**eko

deskontua izango duzu!

98-12-6ra arteko eskaintza

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakar



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.